

## **LITERATURA**

J.A. Mogelen: *Peru Abarca*-ren bigarren mendeurrenean

*Markina-Xemein, Eibar, 2002-XI- 27, 28 eta 29*



## **JUAN ANTONIO MOGEL: PERU ABARKA**

*Eibar, 2002-XI-27  
Maria Jose Telleria,  
Eibarko euskara eta  
kultura zinegotzia.*

Arratsalde on eta ongi etorri danori.

Jakin, badakizuen moduan, berreun urte betetzen dittugu Juan Antonio Mogel eibartar idazliak *Peru Abarka* elebarrixa argitaratu ebala. Markinako ospakizunak jua zan barixakuan amaittu ziran eta, ekitaldi honekin, emoten deusagu hasiera Eibarkoari.

Gaurko ekitaldian jardungo dabenak izango dira, alde batetik, nire naue neure eskuman dagoen Jean Haritschelhar, euskaltzainburua. Beste aldetik, neure ezkerrean dagoen Andres Urrutia, euskaltzaina eta Deustuko Unibersidadeko irakasleak «*Peru Abarka: Forua eta literatura*» gaixa jorratuko dau eta Jabier Kaltzakortak, euskaltzain urgazle, Labayruko kide eta Deustuko irakasleak, «Gregorio Arrueren *Peru Abarka* liburuaren gipuzkerazko itzulpena»ren gainean.

Esan beharra daukat, erregular, Eibarko Udalak hau urteurrenau gogoan euki dabela, *Peru Abarka* Herri Literaturan euskeraz emon dan lehen liburu inportantia dalako. Eta, efemeridiak dogokixon moduan ospatzia merezi dabelako, Euskaltzaindia eta Eibar eta Markiñako Udalen urtean, alkarlanean prestatu dogu, ospakizun-programa.

Horrez gain gogoratu gura dot milla bederatziehun eta laurogeita hamabostean be, Mogelen jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatu genduala eta Jabier Altzibarrek prestatutako Mogelen *Ipuñak* liburua argitaratu genduala, orduan be Udal biok eta Euskaltzaindiaren ekimenez eta Labayru eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren laguntzagaz.

Aurtengo programak eskeintzen daben aukera nagusia Herri Literatura Jardunaldiena da eta, bihar eta etzi, hemen **Portalea** Kultur Etxe honetan izango dira. Berton hainbat espezialista entzuteko aukera izango da eta, matrikula ez danez oztopo, hitzaldiak doan eta irikiak dira eta, espero dot jentiaak aprobetxatzia.

Beste barik, eta berba Jean Haritschelharri pasatu baino lehen, Herri Literaturako Jardunaldiak loturia daukanez, Mogelen «Otso ta irudin batena» deittutako ipuineko sententzia, esango dot:

«Edertasuna da egun laburrekua; jakiturixa, bizitza guztikua.»

Orain zurea da berba, Jean.

## VII. HERRI LITERATURA JARDUNALDIAK:

### SARRERA BERBAK: EIBAR ETA INGURUAREN EUSKALTASUNA

*Eibar, 2002-XI-27*

*Juan San Martin,  
euskaltzain osoa*

Mogeldarrak Nafarroa eta Logroñon zituen beraiean jatorriak.

Jose Antonio Mogel eta Urkitza Eibarren jaio zen 1745. urteko abenduaren 6an.

Pertsonaiaren gorazarrezko ardurapenean oinarriturik euskal hitzaldiak antolatu zituen Euskaltzaindiak «Euskaltzaleen Biltzarra» zeritzan hartan, 1959ko azaroaren 6, 7 eta 8. egunetan. Eibarko Udaletxean hitzaldiak antolatuz eta horiek argitaratu zituen *Euskera* agerkariko V. liburukian, 1960. urtean, 23-183. orrialdeetan, euskarazko Literaturan hain gogoangarria duguna. Eta, nitaz gainera, J.A. Mogel-i buruz berbaldi bereziak eskaini zizkiguten: Fr. Luis Villasante, O.F.M.; S. Altube; Jon Etxaide; Jabier Zubiaurre; A. Irigaray; I. M. Echaide; J.M. Lojendio; A. Arrue eta J. Gorostiagak.

Baina nik ordurako argitaratua nuen *Juan Antonio Mogel eta Urkitza. Bere bizitza eta lanak*, 1959ko urte berean liburuxka batean zenbait gehigarri sartuz. Liburu hori Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekak du eta, era berean, Eibarko Udalaren bibliotekak.

Hitzaldion ondoan izendatu zen Juan Antonio Mogel, Eibarkoa. Juan Antonioren aita zen Juan Ignacio medikua, Markinako Jemeingo Gabriela Ignacia Urkitza Aranzabal zenarekin ezkondurik.

Juan Antonio Mogel-ek, bere idazlan aberats ugarien artean eman zuen *Peru Abarka* (1881-ean argitaratua). Bigarren argitalpena izan zuen 1966. urtean R.M. Azkue-ren gaztelaniazko itzulpenarekin, Bilboko Editorial «La Gran Enciclopedia Vasca» hura nire hitzaurrearekin, 5-9. orrialdeekin berrargitaratua. Idazlanaren aberasgarriak berez euskal Literaturan lekuko on bat duenak.

Gaur egun, zoritxarrez, badira euskara politikarekin nahastatzen dutenak ere; baina Eibarren inork bertan ez du bide hori jarraitzerik.

Adibidez, Aurora Baskaran bere bidez sozialista izanarren, frankismo garaian Eibarko ikastoletako batzarrekoa zen, haren haurrak han zirenean. Gero, frankismoa bukatzean, ongi merezi zuenez, Eibarko alkatetza eman zitzaion.

Guda aurretik eibartar sozialisten buru intelektuala zuten Toribio Etxebarria, euskaraz eta gaztelaniaz liburuak argitaraturik ahalegindu zen eta *Ibiltarixanak* argitaratzean hitzaurrea eskatu zidan, nik gogoz eginik.

Horrez gainera *La liga de Naciones y el problema vasco* argitaratu zenean Euskal Herriko autonomia eta euskararen alde lanak eskatu zituen. Non zioen:

«Si llega la ocasión, y debemos desear que llegue, debemos dar nuestro voto por que se resuelva el problema vasco a base de una amplia autonomía, y aun a base de Estado, siempre que precedan aquellas garantías que no interesan y hemos dejado señaladas».

Luze eta zuzen jarraitu zuen horrela: *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*.

Era antzera eman zuen *Metafísica a Urcola* liburuan ere:

«Moralista, por partida triple, por vasco, por socialista y por hombre de alma –esto se ve medularmente religiosa».

Nire adiskide sozialistak ere euskaltzaleak dira. Eibarren gorri guztiak diren bezala. Beraz, bide okerrez, gaurko politikolari asko alderdiak nahastatzen ari zaizkigu; baina beharrezkoa zaigu hizkuntza guztiak errespetaraztea.

## VII. HERRI LITERATURA JARDUNALDIAK

*Eibar, 2002-XI-27*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Andre agurgarria eta Eibarko zinegotzia.

Eskerrik asko, zure harreragatik, pozik dago Euskaltzaindia, hemen, Eibarren, hain zuzen, Juan Antonio Mogelen omenez. Duela 200 urte idatzi zuela, beraz, *Peru Abarka* famatu hori. Eta hortarako jardunaldi batzuk ere egiten ditugu hemen, horiek izanen dira, beraz, kantu laburrei buruz eginikako jardunaldiak eta hor izanen dira mintzalari parrasta bat eta pentsatzen dut, beti, horietan, zerbait berria agertzen dela. Horrek erakusten digula ere orain zertan den Euskal Herria, unibertsitateak baitira orain, ez ziren hor duela 200 urte. Baina oroit baldin banaiz, Juan Antonio Mogelek hartu zituen iraultza denboran Frantziatik heldu ziren amets batzuk eta haietan bazegoen, hala dio berak, baigorriar bat eta ni baigorriarra bainaiz sortzez, holako gogoeta bat egiten dut eta eskertzen dut zinez, Juan Antonio Mogel.

Holako harrera ederra eginik, ihes etorri ziren hona apaiz horiek. *Peru Abarka* oso ezaguna da, ez dut hortaz gauza handirik erranen, bai, gauza bat bakarrik, gipuzkeraz ere ezarri zutela, bizkaieraz idatzia baitzen eta orain zer gertatzen da. Orain Baionan, Baionako Unibertsitatean, euskal estudioetan, aztertzen dela *Peru Abarka*, programan ezarria delarik, baina, behar dutela bizkaiera jakin. *Peru Abarkarekin* gure ikasleak sartzen dira bizkaieran eta hori da, zinez, oraingo gauza berria, unibertsitateak hor baitira eta behiti-goiti ari baitira, guk dugun ahal gure gazteriak ere, gazteria heldu baita eta gero eta gehiago ikasia baita.

Berriz ere, eta utziko ditut orain besteak mintzatzen, ez bainaiz sobera luze ari izan. Eskerrik asko, berriz ere, zure harrera ederrarengatik.





## **PERU ABARKA: FORUA ETA LITERATURA**

*Eibar, 2002-XI-27*

*Andres Urrutia*

### **1. *Ius semper loquitur*: zuzenbidea eta literatura**

Arratsalde on guztioi!

*Peru Abarkaren* berrehun urte direla eta, hona hemen, beste behin ere, Eibarko herrian, euskararen akademia, Euskaltzaindia, Juan Antonio Mogelen lana gogorarazteko eta aztertzeko.

Mogelen emaitzak, euskarazkoak nahiz gaztelaniazkoak, anitzetan izan dira goratuak eta ikertuak. Euron artean, zer esanik ez, *Peru Abarka* sonatua. Horri aitortu zaio, Hego Euskal Herrian behinik behin, Mendebaldeko euskal literaturaren aitapontekotza ohorezkoa.

Berrehun urte joanak dira, dagoeneko, hura bururatua izan zenetik. Bi mende horien ondotik, aldiz, ekimen berezia eskatzen dio horrek euskal iker-tzaileari, oraingoei eutsi eta *Peru Abarkaren* baitan ikuspegi osterantzekoak idortzeko.

Horri ekingo diot gaurko honetan. Zuen aurrean bestelako ezaugarriak plazaratzea edo, hala nahi baduzue, zuen aurrean iradokizun batzuk egitea izango da nire zeregina, betidanik gogoko izan ditudan bi arlo bateratuz eta bertaraturaz, alegia, zuzenbidea eta literatura.

Horretarako eman behar ditut, lehendaurrez, xehetasunik premiazkoenak, gero azalduko den metodologiaren argigarri izan dakizkigun horiek.

Azken urteotakoa da, gero eta nabariagoa, zuzenbidea eta literatura es-tekatzten dituen soka luzea. Ingelesez, *law and literature* (FREEMAN eta LEWIS, 1999; ARISTODEMOU, 2000); frantsesez, *droit et littérature* (POSNER, 1996). Bi izeneko horien baitan badira, lehen esan legez, bi arlook batera lan-du nahi dituztenak, bi-biotan zer bait berri edo aberasgarri kausituko dutela-koan.

*Ius semper loquitur* (CARRANCÁ, 1998: 141-146). Hala dio esatera maiz-tuak. *Legeak beti hitz egin behar* bihurtuko nuke nik hori, zalantzarik gabe,

euskara latinezko esangurari heldu guran. Hitza da zuzenbidea, hitza da literatura. Eta hitzetan dituzte bi-biok abiapuntua eta abiaburua. Hitza interpretatu, hitzaren bidez lege eta agindua aplikatu, hitzetan adierazi gizakume oro inguratzen duena.

Zerk, alabaina, gurutzatzen eta iltzatzen ditu bi eremuok? Bistan da modu askotakoak izan daitezkeela euren arteko harremanak (POSNER, 1996: 7-10). Haste-hastetik bederen, hortxe dira literaturaren lanak, legea eta zuzenbidea batera zein bestera barruan hartzen dituztenak. Denon gogoan dira halakoak. Hasian hasi, bi arloetako testuek eskatzen dituzte, testugintza orori dagokionez, interpretazioa eta exegesia. Hirugarrenez ere, badute zeresanik bi-biok erabiltzen dituzten tankera, erretorika eta abarrekoek. Laugarrenik ere ezin uka, literaturaren ekarriak lotu-loturik daudelako euren jabetza intelektualarekin. Horren hurrengo, justizia-administrazioa, eta horren lanabes agerikoena, prozesua, antzerki-ikuspegi nabaria duena.

Horraino, bost puntuotara, bi arloen arteko nondik norakoak. Hurbilketa-rako puntu direnek, aldiz, ezin ezkuta euren arteko arrotasuna.

*Ex facto ius oritur* (legea egitatetik sortzen da). Hala esaten zuten jurista klasikoek. Zehatzago legoke, hala ere, *ex fabula ius oritur* (alegiak sortzen da legea). Izan ere, tenkadura argia da: bateko, literaturari dagokion *oro da egingarri* dugu; besteko, jakina, zuzenbidearen *ez duzu hori egin behar* (ÖST ET ALIA, 2001: 9). Bi horien artean, fiabardura konta ezin ahalekoak.

Zertan du irabazia zuzenbidearenak, literaturarekin jokoan jarritz gero? Azalean, besterik gabe, erudizioa egon daiteke, literaturaren gehigarriak beti apaintzen eta prestatzen baitu zuzenbidearen eremu lehorra. Literaturak, nolana ere, haratago joan nahiko luke, antolamendu zurrun eta hertsiki horren zirikituak bilatu eta zabaltzeko gogoz. Hartara, sorkuntza ere molda dezake literaturak zuzenbidearen esparruan, hizkuntza bera erabiltzen baitu kritikapean jartzeko hainbat erakunde eta eraikin juridiko, gizartearen bat-batekotasunaren izenean.

Gauzak horrela, zuzenbidea eta literatura batera eramate horretan, badira zailtasun eta arazoak (BIET, 2000: 11-12). Lehen-lehena tradizioetik dator. XIX. mendetik hona ezaguna da zuzenbidea gero eta itxiago dabilela bere zereginetan, gai tekniko hutsetan, legelarien jabetzapeko esparru moduan. Bestetik ere, zuzenbidea zabaldu egin da, eta horren ezaguera ia-ia ezinezko bihurtu. Horren aurrean, lerrakera bikoitza da arbuigarria: muzin egitea bezainbeste, xehekerietan ibiltzekoa. Nolanahi ere, zuzenbidea desagertu da azken bi mendeotan idazleen esperientziatik, historian zehar gertatutakoari uko eginez. Izan ere, *Ancient Régime* delakoaren idazleek zuzenbidea zuten, beste jakintzagai askoren barruan, habe sendo eta oinarri tinkoa.

Ukaezina da zuzenbidea eta literatura batera datozela hainbat alorretan, besteak beste, gai berberak –ezkontza, oinordetza, gizartearen barne-loturak

eta hausturak, agintaritza- eta subjektu berberak uztartzen dituztelako. Bide beretik ere, begi-bistakoak dira bion arteko desberdintasunak eta kontrako joerak, literaturak maiz-sarri argitzen digulako zuzenbidearen fikzio-izaera eta, horren ondorioz ere, fikzio hori gainditu beharra, gizartearen osagairik beharrenak aintzat hartuta.

## 2. *Peru Abarka*: forua jasotzea

Esanak dira, hortaz, abiapuntu nagusiak. Eginak ez, ordea, horien gaurta-hemen jartzea, euskal literaturaren aitzakian luze ibil baitaitezke euskal zuzenbidearen zirkulu zabalean.

Era-erara dator horretarako *Peru Abarka*. Hamaikatxo aldiz entzun izan ditugu liburu horren zantzuak, askoren aho eta mihietan. Literaturazaleak ez ezik, bestelako ikertzaileak ere etorri dira Mogelen plazara, duela berrehun urte hark asmatu zuena argi anitzen kandela ugaripean jartzera.

Argi horiek, esan beharrik ez dago, guztiz desberdinak izan zaizkigu berrehun urteotan. Bada Mogelengan literatura-kutsua edota politika-ukitua, foru-sistemak zirela eta, goraiatu dituena. Etnografia, teknika eta jakineko beste gauza batzuk ere franko aipatu dira haren itzalpean.

Gaurkoa, esan dezadan laburki, orain arte esandakotik dator, hau da, zuzenbidea eta literatura lotzetik. Areago, gaurkoa Peru Abarkaren testua eta ordu hartan Bizkaian indarrean zegoen forua (1526. urteko Foru Berria) haztatzetik dator, bi osagai horiek batera irakurtzeko modukoak baitira. Paralelismo horretan bilatu dut norabidea. Lehendabizikoz, Peru Abarkaren testuan miatuko ditut zuzenbidearen aztarnak. Gerogarrenean, aztarna horiek legearen argitan jarriko ditut, Mogelek horri zor diona azpimarratzeko.

Badakit bestelako ahaleginak ere egin izan direla foruen irakurketa euskal literaturaren baitan gauzatzeko (ZELAIETA, 1978, 1979). MICHELENA zenak (1988:934) gogorarazi zigunez, Mogel dugu lehena, foruaren gainetik hizkuntza ezarri zuena, euskaldunen arteko estekadura sendo eta indartsu gisa. Tesiarena ere gogoratu da *Peru Abarka* zehazteko. Beldur naiz ni ere ez ote naizen jausiko halako tesi-zulo batean, alde zurretik egiazkotzat jotzen dudana frogatu nahian. Horrexegatik nire metodologiak ez du besterik egingo legearen testuak literaturaren orrialdeekin bateratzea baino, batak eta besteak euren artean duten elkar-eragina nabarmentzeko.

Ez naiz alferrik luzatuko bi testuon xehetasunetan. Jakin beza entzuleak 1802. urtean Mogel Markinan zela, *Peru Abarka* amaitu bitartean. Bizkaiko Jaurerrian indarrean zegoen lege-testua bertako forua zen, 1526. urteko Foru Berria. Izenik esan gabe, hura izan zuen Mogelek jo-harria, eta horri dagozkio Peru Abarkaren aipamenak.

Horrela jokatzek, hala eta guztiz ere, zabalegi utziko luke gure egitekoa. Horrexegatik hain zuzen, hiru autu nagusi aipatu eta aztertuko ditut gaurkoan, hirurok esanaren adierazgarri izan daitezkeelakoan, *Peru Abarkaren* eretzean.

Gogoko zaigu Frantziako iraultzaren osteko juristoi zuzenbide publikoa eta pribatua bereiztea. Ez horrenbeste, azpimarra dezadan, 1802. urtekoei. Hala ere, ardatzak eta zimentarriak behar, eta horretarako zerrendatuko dut lehen-dabizi, bizkaitarren idalgia orokorra, zuzenbide publikoari doakiona; horren hurrengo, etxaguntzaren oinordetza, zuzenbide pribatuari egokitzen zaiona; eta, azkeneko, literaturaren barruan autu unibertsala dena, hau da, justizia-administrazioarena.

Hirurotan ditu printzak eta islak Mogelen *Peru Abarkak*.

### 3. Ez naz ni Jauna... baña etxagun

*Peru Abarkaren* liburua irakurri duen edonork badaki, lehenengo orrialdetik aurrera, bi gizabanakoren arteko autuak direla horko testuen edukiak. *Peru*, baserritar garbia (eta garbizalea) eta *Maisu Juan* (kaletarra eta, estereotipoari kasu eginez, nahasiagoa, euskara eta erlijioari buruzko gorabeheretan).

Elkar ezagutu bezain laster, *Peru Abarkak* sekulako irakatsiak eskaintzen dizkio Maisu Juani:

*Ez naz ni Jauna: abarcac oñetan, chapel bat buruban, guerrestuba gorpuztarian; au da nire apaindurija guztija: baña echagun, icen onaren zalia nasan aldeti, ez oi nas sartu ardanteguijetan nora ecian, premiñaz, ta ecin bestez baño, ez jacolaco echagun beguiratu bati ondo eguiten buruba bat eguitia guizon ospetsu, burrucari, ondatzalle, alper, ta baldanacaz. Ez nau orainguiño inoc icusi ardauc igarota, gach eguinda, zabuca oñac locaturic, ez miña motelduta, ez beguijac lausotuta, asco leguez euren osasun, ondasun ta arimen caltian. Bein baño gueijagotan izan nas neure errico Buru, edo Piel, ta darda gañian erabilli daruadaz ardao saltzallac belutu, edo ondo gautu artian dauqueezanian eche barruban nequezaliac, edo ate edeguijaz ardauc salduten badabe debecauta daguan orduban. (P Ab 43-44)*

Lehen-leheneko hurbilketatik berehalako ondorioak datoz:

– Peruk uko egiten dio jaun izateari. Perurentzat, argi dago, kanpo eta itxurazko jauntza baino, etxaguntza dela benazko jauntza, eskolak eman dezakeena baino goragokoa.

– Peruk nahiago du, hobesten du jauntza hori: *echagun*, *icen on* horiek ematen dizkiote zin-zinezko izaera eta aldarte. Jasekoa, bere buruaren jabe, kanpolarrosa eta buru-iritzia baino.

– Peruk, bestenez ere, badaki etxaguntza horrek ematen diola egundoko aukera bere herriaren agintaria izateko. Izan ere, halakoa izan da; Mogelen hi-

tzetan esateko, *errico Buru, edo Piel* gertatu da, behin baino gehiagotan, Peru. Ez hiri batena, ezpada elizate batena, forua bizi-bizirik dagoen herri batena.

Bereizketa hau nabari-nabaria da Bizkaiko euskal idazleengan. Makina bat aldiz ekarri dira horren puntura Frai Bartolome de Santa Teresaren idazlanak. Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak ere sarri-sarri dira horren lekuko (ZABALA, 2000, II:18):

*Zara Errico fiel, edo Urico Alcate? ¿Celan beguiratu dozu ceure ardurara dagoan Erri edo Uriagatic? ¿Galarazo dozu, deungaro gastadu edo galdu eztaitezan Urico edo Errico errenta, ondasun eta diruac?*

– Peru Abarkaren agintaritzaz ez da nola-halako agintaritzaz. Gobernu onaren adierazle aipatzen ditu berak ardo/saltzailearen aurkako manuak, gizabanakoen bizimodu zuzen eta okerrik gabekoa bermatzeko. Berandu arte izaten omen zituzten ardo-saltzaileek euren bezeroak ardandegietan. Peruk gogor debekatu du egote hori, forua eskuan duela. Hartara, Bizkaiko Foruaren testua:

*Título Treinta y cinco, Ley XIII. Que los Taberneros no tengan nappes, ni dados, ni bolas, ni otro juego, ni consientan jugar, ni reciban para dormir en su Casa á ningun vecino de su Anteiglesia:...ni sea ossado acoger de noche en su Casa á ningun Vecino del mismo Pueblo, y Ante-Iglesia, só pena de dos mil maravedias por cada vez, que lo contrario hiciere, repartidos, la tercia parte para el Hospital, y Pobres de aquella Ante-Iglesia, do fuere la tal taberna, la otra tercia parte, para los reparos de los caminos de la mesma Ante-Iglesia, la otra tercia parte para el Juez y acusador, que acusaren y executaren a medias. (FNV, 101-102)*

*Ogeitamabosgarren Atala, XIII. Legea. Tabernariek ez dagiela kartarik, ez seikorik, ez bolarik, ez beste jokogaillurik euki, eta jokaterik bere ez dagiela onartu, eta bere elizateko auzokiderik ez dagiela lotarako artu...eta bere Erri edo Elizateko auzokiderik bere etxean gauzez artzen ez daitela ausartu, besterik egingen dauan baktotzeko bi milla marairen zigorpean, irutatik bat Taberna bera dagoan Elizateko Gaixoetxe ta ez-eukientzat, beste zatia Elizate bereko bideak konpontzeko, irugarrena salatariaren eta bete-eragipena egin dauan Epaikariaren artean erdibana egiteko. (BFB, 428-430)*

– Demokraziarik erabatekoena dirudi horrek. Behera ditzadan, alabaina, horren nabarmenkeriak. Peru, jabetzaren aldetik, ez da jabeen morroi edo baserri-maizterra. Peruk hiru baserri dauzka (hortaz, maizterrak ere izango zituen), eta, bere buruari ez ezik, Maisu Juani ere aitortzen dizkio leinutasuna eta idalgia.

Besterik ez bada, hona 1526. urteko Foruak lainoki arautzen duena bere lehen tituluko XVI. legean:

*Ley XVI. Como los Vizcaynos fuera de Vizcaya, han de gozar de su Hidalguía, y la Provanza, que para gozarla han de hacer. Otrosí, dixeron: Que todos los Naturales, Vecinos, é Moradores de este dicho Señorío de Vizcaya, Tierra-Lla-*

*na, Villas, Ciudad, Encartaciones, é Durangueses, eran Notorios Hijos-Dalgo, é gozaban de todos los Privilegios de Homes Hijos-Dalgo. (FNV, 12)*

*XVI Legea. Bizkaitarrek Bizkaï'tik at euren aundikitasuna euki egin bear dabela, eta orretarako ekarri bear dituen egiztabideak. Baitan, esan eben: Aitaturiko Bizkaï'ko Jaurerri guztian, Lurralde Lau, Uri, Uriaundi, Enkartalde ta Durangaldean, izatez bertokoak diralarik, bizi diran Bizkaitar eta bizilagun guztiak agiriko Aitonen Seme zirala eta Aitonen Semeei dagozkiezan Lege Berezi guztiak zituela. (BFB, 47)*

#### 4. Bizcaico porubac emoten deust escubidia

Aurrekoa zuzenbide publikoari dagokion ber, oraingoa zuzenbide pribatuaren haritik azalduko da.

Lehenengo autuan hiru etxaguntzaren jabe aitortzen du Peruk bere burua. Orain, ostera, etxe bakarra du ondare. Lehen aututik hirugarren autura eskastu den *Peru Abarkak* tinko azaltzen dio, baserrian jada, Maisu Juan kaletarrari baserria belaunaldiz belaunaldi oso-osorik eskualdatzeko lege-prozedura.

Gutxitan dira halakoak euskal letretan. Ezaguna da, sistema hori, ipi-apa eta ezaugarri antzekoekin, Euskal Herriko foru-lurraldeetan bizi izan dela mendeen mendeetan. Lekukotasunak, onerako zein txarrerako (horra Pierre Topet Etxahun), ugariak dira. *Peru Abarkarenak* bezain zehatzak, ordea, bakanak eta urriak:

*Eztaucat eche bat baño. Bizcaico porubac emoten deust escubidia aututeco zuben artian gura dodana oinordecotzat. Guztiac bardin diriala, autuco dot semeen artian lénen jaijua. Zubec buru dongacuac bacinee, autuco neuque alaba nagusija. Ezta ondo gurasuac lotuta euquitia euren escubac. Seme nagusijac balequi, ta balezaü gura ta ez izango dala ondasunen jabe, eguin lei otuten jaco-na; echecho caltían dan ezcontzaren bat jaramon бага gurasuai, edo onei euren bai-etz noraezecua escatuta, negarrez largaten ditubala. Bildurric ezpaleuque galduco dabeela echaguntzia, buruco miñ ta atsacabe asco emon leijue gurasuai; baña oneec dauqueenian escubide ta auqueria emoteco gura dabenari seme-alaben artian, ecarri eraguingo deutsee lotsia, ta gordeco dira dongaro vici izateti. Beti da ondo berez semeren batec eruatia echia, arrotz ta beste iceneco bat jabetu бага. Baña guraso onac, bat ondo baño obeto ipintearren, eztau aztu bihar guztien gurasua dala. Aituco dozu onembestegaz cer esan gura dodan. (P Ab, 107-108)*

Betoz orain Bizkaiko foruaren hitzak. Lege-hitzak, aspaldiko gaztelaniaz idatziak, gure belarrietan antzinakoen durundak ekartzen dizkigutenak. 20. tituluko XI. legeak honetara dio:

XI legea. Gurasoek etxaldea euren seme-alaba bati itxi daikeoela, besteak lur apur bat emonda baztarturik, eta legezko ez diran semeen ondorengotzari buruz. Baita, esan eben: Foruz, usuarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezar-

ten ebela, legezko Ezkontzako seme-alabak daukazan edozein Gizon edo Emakumek bere bizialdian edo eriotz-aldian legezko Semeren edo Alabaren bati edo illik dan Semeren edo Alabaren legezko ondorengo dan birlobaren bati bere ondasun mogikor eta lur-ondasun guztiak itxi daikeozala, beste seme-alaba ta ondorengoak, naiz-eta legezko Ezkontzatikoak izan, lur zati bana, txiki edo aundi, emonda baztarturik. (BFB, 232-234)

*Ley XI. Cómo los Padres pueden dexar su hacienda á uno de sus hijos, apartando á los otros con alguna Tierra y de la succession de los Hijos, que no son legitimos. Otrósí, dixeron: Que havian de Fuero, uso, y costumbre, y establecian por Ley, que qualquier Hombre, ó Muger, que oviere Hijos de legitimo Matrimonio, pueda dar, assi en vida, como en el artículo de la muerte á uno de sus Hijos, ó Hijas legitimos, ó a nieto, y decendiente de su Hijo, ó Hija legitimo, que haya seydo fallecido, todos sus bienes, muebles, y rayzes, apartando con algun tanto de tierra, poco, ó mucho á los otros Hijos, ó Hijas, y decendientes, aunque sean de legitimo Matrimonio. (FNV, 56)*

Bi testuon irakurketak gogorarazten diguna honetara laburtuko nuke nik:

– Ezin zalantzan jarri oinordeko bakarraren alde Moglek egiten duen defentsa sutsua. Hori da, eta ez besterik, baserria eskurik esku, familiaren barruan eusteko modurik egokiena. Defentsa, hala ere, ez da edozelakoa, ohar handikoa baino, hortxe baitaude, askoren ustez, euskal foruaren euskarri eta sostenguak. Aztertua izan da jada, ikuspegi frankoren aldetik, *Peru Abarkaren* moduko baserriar jabeen interesak nondik bideratu ziren XIX. mendearen hasieran, ilustrazioaren eta liberalismoaren artean.

– Moglek seme-lehentasuna aipatzen du. Semeen ondoren, alabak. Sexu-lehentasun hori, nolana ere, nabariagoa da beste euskal lurraldeetan, Bizkaian baino. Praktikak erakusten du halakoen baieztatzea, aspaldiko agirietan agertu den legez (LANGE, 1996:101):

*Según el Fuero, las mujeres tenían derecho de heredar. El análisis de 150 contratos matrimoniales demuestra que los padres hicieron uso escasamente de esta posibilidad. En un 71,66% de los casos el marido era quien aportaba la vivienda, en el 24,3% la esposa y, por último, en el 4,1% ambas partes contribuían con un caserío. Consecuentemente, en la mayoría de los casos, era la mujer la que se trasladaba para casarse y no viceversa.*

– Etxeak lotzen ditu familia eta abizena:

*Eldu gara bada gabiltzan gabiltzan, ó adisquidia, neure echaguntzara ta jaquin eguizu derichola Landeta, landa eder baten dagualaco. Ezta guizon aldi daquinunian, eche onetara ezcondu mutil arrotz, edo beste echetacoric; belaunic belauin guizon eheco semeetati eldu da nigana; agaiti aldatu ezta niganaño neure icen ondocotzat eche onen icena; alan derist Peru Landeta-co. (P. Ab., 91)*

Hemen ere, begien bistakoa da bestelako hori, hots, oinordeko bakarraren sistemak etxearekin duen lotura. Etxea da izenaren jatorria, eta etxe barnean sortzen da familia-erkidegoa edo fratria izendatzeko bide nagusia. Ho-

rrela ematen dute, berbarako, Bizkaiko ezaugarriek (LANGE 1996:100) nahiz Nafarroakoek (MORENO eta ZABALZA, 1999: 92).

– Mogelek ezkontza-kontratua jartzen du Peru Abarkaren esanetan. Hor-taz, ez du onesten seme edo alabaren oinordekotza bakarra, inolako aginpide-rik gabekoa. Agerian da hemen bi belaunaldi daudela jokoan: belaunaldi za-harra (aita/ama) eta gaztea (seme edo alaba ezkongai). Bi horiek batera bizi behar dute baserrian, *mahai eta erkidego* berean, usu erabili den formula biz-kaitarrari oratzearren. Ez zen, alabaina, formula hori edonorentzat egina, et-nografiaren iturriek erakusten digutenez (AEV, II, 1998: 440-441):

*Otorgaban capitulaciones matrimoniales, ezkontzako kontratua, quienes eran propietarios o contaban con una cierta posición económica. Contentán do-naciones, dote, mandas, nombramiento de heredero, reserva y algunas previsio-nes consuetudinarias.*

Hor sartzen da, bete-betean, gure Peru Abarka jauna, *inora* baino, biz-kaitarren hitzetan esateko, *etxera* ezkondu zela.

– Gurasoen agintea, beraz, egundoko bermea da, baserriaren ibilbide zu-zena ziurtatzeko. Horrela, bide egokitik desbideratuz gero, seme edo alaba dongaro horrek ez du ondare-igurikimen txikienik ere izango, egun batean ba-serria bere eskuetara etorriko denik.

– Latz eta gogorra izan daiteke, hainbatez, baserritik kanpora joan behar dutenen patua. Etxearen jabetza ziurtatua da, etxearen jabe berria jardunean baitago etxeko nagusiarekin batera. Eta besteak, zer? Besteen bazterketa non-dik bideratu? Mogelen esku luzeak ez ditu halakoak ahaztu, eta horientzat ere badu zer ekarri, horiek ere etxekoak dira eta.

Baserrian bertan biziko dira ezkondu arte. Ezkonduz gero, ezkonsaria era-mango dute andrazkoek. Gizonezkoek, bestalde, ofizio edo zereginetarako egokiera lortuko dute etxearen kontura.

Hitz batean esanda, horra foru-zuzenbidearen muina, goitik behera azal-dua: etxaguna eta etxea dira arau-antolakuntzaren ardatzak. Etxaguna da go-bernuan parte hartzen duena, agintari izateko aukera duena eta, jakina, idal-giarako gai dena; etxagun berberak du eskubidea, etxearen baitan, etxea oinordekoei eskualdatzeko, egokien iruditzen zaion moduan.

Horraino, Peru Abarkaren esan eta eginetan, irakatsi aberasgarriak. Nor-baitek pentsatua du, dagoeneko, esandako oro ez ote den bukolikoegia edo idi-likoegia, baserritar demokrazia orbangabearen izenean. Errealitateak bestela-koa ere badiosku. Horretarako helmuga zorrotza Peru Abarkaren karian dago, zuzenbidea eta literatura uztartu nahi izate horretan.



## 5. ... emongo dabela querellaren bat nire contra...

Eguneroko kexa da, gizakia bera bezain zaharra, nire azkena, justizia-administrazioarena. Maisu Juan da hizlari:

*Badaquit cer esan gura deustazun: emongo dabela querellaren bat nire contra; etorrico jatazala escribau ta aguacilen batzuc, eguingo ditubela procesotzarac, ta ezarrico costubac nire lepotira, ta menturaz sartuco nabeela preso. (P Ab, 79)*

*Ni nas justicijaco aguacila. Artu dot arrastuba, ta esan jacu onuntz etorri dala barberu ondo apaindu bat, pantaloeduna, ta moda modara jancija. ¿Nun da bera? Eracutsico jaco celan vici. (P Ab, 190)*

*Escribauba zain dago benta baten, emendi neroiana eruateco preso; maquina bat costu eguin dira; ez daquit noc pagauco dituban. (P. Ab., 191)*

Hirugarren honek abagune ederra dauka *Peru Abarkarena* legearen iriztietan jartzeko. Jakina da, eta literatura guztietan aztertua, justiziaren alorra. Erliijoak sarri-sarri erabili izan du giza justiziaren prozesua Jainkoarena iruditatzeko. Besteak beste, hortxe dira Etxepareren bertsoak, azken judizioa dela eta.

Bestenaz ere, non-nahi dira ageriko aipamenak epaile edo jujeari buruz, horren menpekoak ere tartean direla. Herri-literaturak ez ditu leku onean jarri justiziaren langileak. Atsotitzak, errefrauk, antzerki irrigarriak... Beti izan dira aparteko aukerak, justizia kritikatzeko eta justiziari erasotzeko. Ezin, hortaz, justiziak, guztion gogo eta asmoak ase eta bete.

*Peru Abarkaren* hariak, ulerbidez, bi lekutan egiten du topo justiziarekin. Biotan, gainera, beldurra da nagusi, hau da, prozesu aurreko lerrabideetan ibiltzekoa.

Horiek horrela, Mogelen aurreiritziak bistan daude, betiere Maisu Juanen ezpainetan:

*Zain dagoz nor jausi aldedin cetan edo atan esesteco, paperac balcutiteco, eta andiquijac baño vicitza obia daruatzube inoren negarren costura. Aztuten dira erruquijaz, ta dauqueez biotz batzuc achac baño gogorraguac. Icusi ditut nos bait idijac corteetati atera, ta salduten euren paguraco, arrantza batian isten citubela idi-jaubiac. Nequezaliac eurac dauquee erru ez chicarra. Utsa gaiti, verba chachar batzuc gaiti, zor premiñaz atzeratuba gaiti, duaz querellac emotera; erraztuten deutsee vidia, esanaz, despachu bat aterata, lau egun barru urtengo dabeela gura dabeenaz. Lau egunac elduten dira lau illera; despachubac dacaz declaracinoiac, eta eguiten dabee proceso asco lizatiana amar bider lapurren aguiro edo probantzac eguiteco. Ni Jangoicuac gorde nau euren atzamarretati, merci ezpaneban bere. (P. Ab., 193)*

Lehenengo aututik bosgarren autura, zernahi gisaz, hiru lagun ari dira: Maisu Juan, aguazila eta *Peru Abarka*.

Nondik-nahi begiratuta, azpimarragarri oso:

– Beldur dena, beti-beti, Maisu Juan da. Lehen autuko ostalariari iruzur egin omen zion. Horren ondoren, modu okerrean ihes egin zuen Maisu Juanek. Ostatu-kontratua, beraz, hautsia, ezelako begirunerik gabe. Zorra sortu da, eta Maisu Juan da horren erantzule. Ostalariak kereila jarri eta prozedura hasi beharko da. Dagoeneko hasi da, Foruaren 9. tituluaren II. legean datorrenaren arabera:

*Pero en todos los otros casos, pueda el Juez cometer la Información, ó Probanza á qualquier Escrivano Natural de Vizcaya, de buena fama, que no sea pariente, ni cuñado del Acusador, dentro del tercero grado. (FNV, 30)*

*Beste kasu guztietan, barriz, Epaikariak izen onekoa dan eta irugarren mailaren barruan Salatariaren senide edo koñau ez dan edozein bizkaitar Eskribauren ardurapean itxi daikela argibide ta egiztagarriak jasotea. (BFB, 122)*

Legearen testua da horretan arauzkoa. Garai bereko sermolariaren hitza, aldiz, arineketan doa prozesu horretan zehar entzuleei erakusteko, hiruzpalau fiabardura laburretan, haren ibilbide osoa. Hona Frai Bartolome de Santa Tesaren esanak, bere *Icasiquizunac* idaztean (1817, II: 167):

*Juezac aucijaren erabaguia emoteco, jaquin bihar dau, noc daucan errazoa. Au jaquiteco, balijetan da testigubaquin. Areec, zer dinuen, jaquiteco, Esribauquin. Ta Areen esanac leguiagaz neurtuteco Letraubaquin. Aucilarijac artuten dau bere laguntzat norbait. Ta oni esaten jaco Procuradoria. Onec, aleguin guztiagaz beguiratuta, zaindu bihar dau bere partiaren errazoa Juezaren aurrian, Onei darraicuez, oidanez, auzi guztietan empeñubac, ta vitaartecuc alde bijetati, Ez, gueijenian, errazoa aguertuteco, ta zuzenduteco. Ez bada, dan moduban dala, aucija irabazteco.*

– Badaki Maisu Juanek zer datorkion: *kereila, prozesutzarrak eta kostubak*. Horren ondorioz beharbada, preso sartuko dute. Frogak eta lekukoak ere ez nolanahikoak, legeko eta abonauak baino, kereila aurkeztu duenaren alde lerra ez daitezen:

*Titulo octavo, Ley II. En qué manera se puede proceder contra los Testigos falsos, y contra los sobornadores de ellos. Otrósí, allende de contra los dichos malfechores, el Juez pueda proceder de Oficio contra Testigos falsos, é sobornadores, é corrompedores de ellos, cuya falsedad estuviere averiguada por el Proceso, agora por confession, é variedad, é contrariedad del Testigo, agora en otra qualquier manera: con que no se haga nueva probanza para averiguar la falsedad, salvo por experiencia del Lugar, y evidencia, é vista ocular, é reproducimiento, y acareamiento de Testigos. Y que en este caso, no pueda entender, ni proceder el Juez contra el tal Testigo, salvo durante el Pleyto, en que depuso el tal Testigo, é no despues de sentenciado: Salvo si antes de la Sentencia comenzare á proceder contra el dicho falso Testigo: cá en tal caso despues de principiado el procedimiento, pueda proseguir y sentenciar en qualquier tiempo, assi antes de sentenciado en la causa principal, como despues. Pero que á pedimiento de la parte, contra quien depuso, se proceda contra el tal Testigo en todo tiem-*

*po. Y que el Testigo tal sea oydo en su Justicia, y pueda alegar, é probar su inocencia, y descargo en forma comun, y por qualquier via, y forma que pudiere. (FNV, 28).*

8. titulua, II Legea. Guzurrezko lekukoek eta oneetarikoak azpitik erosten dituenen aurka auzibidez zelan jokatu daiteken. Baita: Aitaturiko gaizkillez gainera, guzurrezko Lekukoek eta azpikeriaz eta koipekeriaz erosten dituenen aurka Epaikariak Egintzaz jokatu daikela, Lekukoak berak autortu daualako zein aldatu egin dalako zein bere burua guzurtau egin daualako zein beste era batez auzibidean guzurra agertu baldin bada: guzurra ager daiten, baiña, beste azterkuntzarik ez daitela egin, lekuan ikusi izana ta agiri-agirikoa izatea ta norbere begiz ikusirikoa ta Lekukoak barririo ekarri ta alkar jotea baiño. Eta, olakoan, Epaikariak ezin daikela eskubiderik izan onelango Lekukoaren aurka auzibidez jokatzeko, Lekukoak berak autor egin eban auzian izan ezik, ez epaitua izanda gero, epaita emon aurretik onango Lekukoaren aurka ez baliardu: olakoan, bada, auzibidea asita gero, jarraitu daikela ta edozein unetan epaitu bere bai, auziaren arazo nagusia garbitu aurretik zein garbituta bero. Lekukoak aurka egin eutsan alderdiak eskatu ezker, barriz, edozein unetan Lekukoaren aurka ekin daitekela. Eta onelango Lekukoari bere buruaren alde entzun dakiola eta bere errugetasuna erakutsi ta egiztatu aal izan dagiala, bere burua zuriturik, oi dan eraz eta aal izango leuken beste edozein bidez eta eraz. (BFB, 116)

– Ikara bizian dago Maisu Juan, justizia-ofizialeen diru-gosea dela eta. Irudi berbera, diruarena, aguazilaren berbetan entzungo dugu, *Peru Abarkaren* seigarren autuan:

*Escribaubari ta niri pagau biarco jacuz gueure aloguerac nundi edo andi; baiña atrapau baguendu barberu dontsuba, quenduco gueuntsan bizarra. (P Ab, 192)*

– Peru Abarkari esker, Maisu Juanek alde egin dio justiziaren atzaparrari. Orduantxe bertan, burua askatzeaz batera, Mogelek Maisu Juanen hitzetan ematen du auzien aurkako adierazpena. Ohar bedi, orobat, Maisu Juanen aho-mihietan doazela horiek, eta bera dela auzitegiko hainbat hitz eta berbamolde tekniko mailegu gordinez erabiltzen dituen, inolako euskal garbizalekeriarik gabe. Ez dago hor Larramendiren itzala, zuzenbidearen hitz berezietan bederen (URRUTIA eta GALLASTEGUI, 2001).

– Antza denez, orduko giroaren adierazle bikainak dira azken bi horiek, sermolarien liburuetan agertzen denari jaramon eginez gero. Ugari ziren Bizkaian, itxuraz, auziak. Aurkako gogoia ere, guztiz zabaldu eta papereratua. Entzun ditzagun, berriro ere, Frai Bartolome de Santa Teresaren intzirriak (1817, II: 161):

*Bai, gueure errijetan, vide bagaco, ta balijo andi bagaco milla auzi gorroto, ta castu andico egunero icusten dirian lecubetan. Ez daquit au cegaiti. Ala, gentia berez auzilaria dalaco: Ala, inoren auziagaz ondo vizi gura leuqueen, larregui dagozalaco. Izan leiteque bijac gaiti.*

Gaiak, hortaz, ez du gaurkotasunik galdu, artean berrehun urte joan bada dira ere.

## 6. *Nos artian guero bere, Catilina?*

Sona handiko galdera horixe, gure belarrietan sarritan entzun duguna. Mogelek euskaratu zuen, eta berak eman zigun erretorika klasikoaren eredua euskaraz, bizkaieraz zein gipuzkeraz. Bidea ireki zion, ezbairik gabe, euskarari halakoetan. Testu klasikoak dira horiek, latinez aipu zabalekoak eta Peru Abarkaren gehigarri etorri zirenak.

Gaurkoa, horratik, ahalegin xumea izan da, gizartean ondo erroturik dauden bi errealitate horiek, zuzenbidea eta literatura, barne-barnetik uztartzeko. Mogelek begien aurrean zuena islatu zuen, alegia, foru-sistema eta hizkuntza baten elkarbizitza. Badirudi, beraz, duela berrehun urteko egoeraren on-gaitzak bistarago izan ditzakegula bi horien bitartez, orduko osagaiak egoki eta artez ikertuz gero.

Betor, beraz, azken galdera, Zizeronen berberarena, euskararen inguruan diziplinarteko ikerketak jakiteko eta eskatzeko, elkarren aberasgarri eta osagarriak. Hortxe izan daiteke, neurri batean behinik behin, euskal kulturaren etorkizuna.

*Noiz artean* galdetu zuenari, horrenbestez, *laster arte!* erantzun behar, egin gogo nuena bete dudalakoan.

Mila esker.

## 7. Bibliografia oharrak

ARISTODEMOU, M.: *Law & Literature/Journeys from her to Eternity*, Oxford University Press, Oxford, 2000.

ATLAS ETNOGRÁFICO DE VASCONIA (AEV): *Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia*, Etniker Euskalerrria, Bilbao, 1998.

BIET, CH. (zuz.): *Droit et littérature, Littératures classiques* (40-automne 2000), Honoré Champion éditeur, Paris, 2000.

CARRANCA Y RIVAS, R.: *El derecho y la palabra (Ius semper loquitur)*, Editorial Porrúa, Mexico, 1988.

FREEMAN, M. eta LEWIS, A.: *Law and Literature*, Current Legal issues volume 3, Oxford University Press, Oxford, 1999.

FUERO NUEVO DE VIZCAYA (Sarrera: Celaya Ibarra, A.), Leopoldo Zugaza editor, Durango, 1976. Liburu honetara batzen da Delmas editoreak egin eban Foru Barriaren argitalpena, 1865. urtean. Aipamenak bertatik egin dira, *FNV (Fuero Nuevo de Vizcaya)* ikurpean.

- LANGE, J.: *Economía rural tradicional en un valle vasco. Sobre el desarrollo de estructuras mercantiles en Zeberio en el siglo XVIII*, Ediciones Beitia, Bilbo, 1996.
- MICHELENA, L.: El texto de *Peru Abarca* in *Sobre Historia de la lengua vasca. II*, Anejos del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo 10, Donostia/San Sebastián, 1988, 932-947.
- MOGUEL, J.A.: *El doctor Peru Abarca*, Imp. y lib. de Julián de Elizalde, Durango, 1881. Gerediaga elkarteak egindako faksimila, Durango, 1981. Testuaren barneko aipamenak argitalpen honetatik egiten dira.
- MORENO ALMÁRCEGUI, A. eta ZABALZA SEGUÍN, A.: *El origen histórico de un sistema de heredero único. El prepirineo navarro 1549-1739*, Instituto de Ciencias para la Familia, Universidad de Navarra, Ediciones Rialp, Madrid, 1996.
- OST, F., VAN EYNDE, L., GÉRARD, PH. ETA VAN DE KERCHOVE, M.: *Lettres eta lois lle droit au miroir de la littérature*, Publications des Facultés universitaires Saint-Louis, Bruxelles, 2001.
- POSNER, R.A.: *Droit et littérature*: Presses Universitaires de France, Paris, 1996.
- PUXANA Y AGIRREGABIRIA, P.: *Bizkai'ko Forua*, José de Estornes y Lasa argitarazlea, Bilbao, 1981. Bertatik jaso dira Bizkaiko Foru Berriaren berbak, euskarazko testuetan. *BFB (Bizkaiko Foru Berria)* ikurpean doaz horiek.
- SAN MARTIN, J.: *Mogel, bere bizitza eta obrak*, Itxaropena argitaldaria, Zaurutz, 1959.
- SANTA TERESA, FR. BARTOLOMÉ: *Jaungoicuaren amar Aguindubeetaco Azque-neco bosteen Icasiquizunac*, Rada Alargunaren liburuguillaan, Iruñea, 1817.
- URRUTIA, A. ETA GALLASTEGUI, C.: «Euskarazko lexikogintza juridiko-administratiboa. Larramendiren eragina», Euskaltzaindia-ren nazioarteko XV. Biltzarra, Bilbo, 2001, argitaratzeko lana.
- ZABALA, FR. MATEO DE: *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak (II)*, Fr. Luis Villasantek paraturiko argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000.
- ZELAIETA, A.: *Foruak eta euskal literatura*, Kriselu, Donostia, 1978.
- ZELAIETA, A.: *Peru Abarcaren berrirakurtzea*, Kriselu, Donostia, 1979.



**GREGORIO ARRUEREN *PERU ABARKAREN ITZULPEN*A.  
MOGELEN *PERU ABARCA NOIZ IDATZI ZEN*?**

*Eibar, 2002-XI-27*

*Xabier Kaltzakorta*

Juan Antonio Mogelek *Peru Abarca* idatzi zuenetik hona, iragan dira berehun urte behintzat. Ez dakigu zehazki noiz idatzi zuen erran delako obra hori, dakiguna da 1802ko otsailaren bukaera aldera idatzia edo burutua zuela bere lanik famatuena. Diogunaren froga nagusia da Vargas Ponceri idatzi zion gutun bat. Hona hemen, Vargas Ponceri 1802 otsailaren 26eko gutuneko parte argigarria:

«Pero hablemos claros: en medio de la pasión con que se censura al vascongado, no hay en general gente mas desidiosa en cultivar y perfeccionar su idioma, y así es que somos nosotros sus mayores antagonistas, exceptuados algunos pocos sugetos. Nuestra sociedad vascongada ha dormido en este ramo, y así no ha tenido el vascuence una academia ni buenos escritores que le hayan dado cultura particular. Habita como desconocido en los bosques y casas solitarias, y es mas que cierto que nuestros rústicos montesinos le saben y hablan maravillosamente y sin las alteraciones que se notan en la gente que debia ser su depósito. Y se puede decir aquí: Rusticus ab normis, sapiens crassaque Minerva.

Con el objeto de vindicar al idioma de las acusaciones de pobreza, he trabajado una obra de Diálogos vascongados entre un rústico casero y un cirujano callejero. Tendrá la obra como unas doscientas ó mas páginas en 4o, y en tantas conferencias y de asuntos diferentes, jamás profiere el rústico voz alguna que no sea usual entre los de su clase y se deje de ser pura, sin mezcla de extraña, y corrije al inculdo cirujano en sus bárbaras locuciones. Instruye á este en bellos refranes, en saladas locuciones, en idiotismos del vascuence: le hace oír poesias curiosas de los mismos rústicos, fábulas con moralidad. Así se demuestra prácticamente que el vascuence es fecundo en voces y aptísimo para la poesía. Le hace viajar por los bosques para enseñarle los muchos árboles y arbustos con sus nombres vascongados. Le introduce en una ferreria, y halla centenares de voces vascongadas en instrumentos, parajes, etc. De esta manera recorre las oficinas del tejedor, del carpintero, del molinero, etc.

En suma, habla en un vascuence natural, usual; y los cultos vascongados, ó los que debian ser tales, no le entenderán al buen rústico en multitud de voces. Para evitar este inconveniente he trabajado para el fin de la obra una nomenclatu-

ra de todas las voces contenidas en ella y proferidas por el rústico, con sus correspondientes castellanas. Me ha parecido ser el mejor método para que se cultive nuestro idioma, y si otros prosiguen en ello, no se nos podrá acusar de la pobreza de voces, y sí de nuestra desidia (1)».

Eskutitz hau handik berrogeita hamar bat urtera argitaratu zuen, 1854an, Real Academia de la Historia delakoak, baina artean Mogelen lanak ez zuen argirik ikusi. Mogelen Peru Abarca lanak argitara gabe iraungo du luzaroan. Horrexegatik eskutitz hau argitara zenean, oin-oharrean Jose Frantzisko Azkibelen uste hau agertzen da Mogelek aipatzen duen dialogo horien gainean:

«Probablemente los mismos que en el año de 1816 dio á luz su sobrino sucesor en el curato de Marquina Don Juan José Moguel».

Mogelen lana atalka *Beti bat* egunkari karlistan agertuko da 1880an eta liburu bezala Durangon, 1881an. Liburuaren izenburu osoa hauxe da: *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado maisu Juan*.

Lan hau laurogei bat urte argitara gabe egon arren, garai hartako euskal-zale batzuk ezagutzen zuten. Zergatik? Juan Antonio Mogelek bere loba bati eman ziolako, Juan Jose Mogeli, eta honek Zarauzko frantziskotarren konbentu edo *Colegio de Misioneros* delakoan utzi zuelako. Juan Antonio Mogelen eskuidatzitik hainbat eskuidatzizko kopia egin eta banatu ziren, batez ere orduko fraile-konbentuetan. Kopiak egiten direnean, ordea, badakigu zer gertatzen den. Edo gaizki ulertuak direla edo ongi irakurri ezina dela edo txukuntze edo hobetze kontuak direla, ez da berdin-berdin kopiatzen, baina kontu hori utz dezagun geroko (2).

## ZER DA PERU ABARKA?

Izenburua irakurri ondoren, ondotxo jabetzen gara, izenburu luzea erdaraz duen arren, euskazko obra dela. Izenburuan ez ezik, gainerako sei dialogo edo elkarrizketa buruan ere erdaraz ematen ditu zehaztasunak Mogelek. Lehen elkarrizketan, esaterako, *Dialogo primero entre el inculto bascongado y barbero Maisu Juan y el culto casero Peru. Se da principio al Diálogo en una venta*,

(1) *Cartas y disertaciones de don Juan Antonio Moguel sobre la lengua vascongada* separata del memorial histórico español: colección de documentos, opusculos y antigüedades que publica la Real Academia de la Historia, tomo VII, Madrid Imprenta de José Rodríguez, 1854, 702-705.orr.

(2) Orain arte argitara emandako bibliografia beharrezkoena: Xabier Altzibarren *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak* 1992urtea. Mogelen *Peru Abarca*ren eskuidatzien gainean badago berariazko lan bat X. Altzibar berarena: «*Peru Abarca*-ren kopiak eta lehen edizioa», ASJU, XXIV-3, 1990.



*donde se encontraron casualmente.* Ez bakarrik elkarrizketa buruan, elkarrizketa barruan ere zehaztasunen bat eman behar bada, erdaraz ematen da. Lehen elkarrizketan, esaterako, *Viene la moza con la comida. Después de haber colocado la mesa mal o asquerosamente cubierta dice ella.*

La moza: Egon zaree luzaro barriketan milla berba egiten ta gero beinguan ito biarra. Ona emen lapiko galanta eta pitxar bete ardao...Geroago Empieza a comer Maisu Juan y dícele Peru. P. Maixuba, bedeinkatu daigun maija; nire etxian ta baserrikoen artian beti jan aurreti alan egin oi da, baita jan ostian eskerrak emon Jangoikuari, zeñen eskubetati jatorkuzan on guztiak. Gero badakigu zer gertatzen den: moskor bat hasten da kantuan sabaitik: Repite el verso expuesto, y lo escribe el Maixu Juan y dice: Berso asko irakurri ditut neure aldijan erdaldunen liburubetan, baña ez berba gitxitan gauza gejjago esan gura dabenik.

Era honetako zehaztasunak erdaraz idazteak liburuaren irakurlea edo destinatarioa nor den argi erakusten digu: garai hartako euskaldun seme erdaldunduak edo euskararen baliabideak ezer gutxitan zeukatenak. Mogelek Luis Vivesek latinez idatzi zituen bezalako autuak idaztean garai hartako euskaldun eskolatuak zituen buruan. Garai hartako euskaldun eskolatuak euskararen gaitasunaz eskolatu edo leziatu nahi zituen Mogelek. Tesi-liburu bat da, beraz, helburu praktikoko batekin idatzia. Maisu Juan bezalako euskal semeak atzerrian eskolatu ondoren Euskalerriratu eta euskara euskalgaito bihurtua zuten eskolatuentzat idatzia. Horrexegatik hornitu edo troxatu zuen liburua erdarazko hitzaurre batekin (5-41 or.) eta «Diálogo entre dos amigos eclesiásticos, el P. Fr. Pedro de Urljia y D. Juan de Zandija» elkarrizketarekin, idazl klasiko latindarren pasarteekin (Sallustio, Marco Tulio Ciceron...) eta Nomenclatura delakoarekin.

Liburuaren norenganakoaz zein zergatikakoaz luze eta sakon hitz egin dute orain baino lehenago (3). Hitz bitan esatera behartuko bagintuzte, hone-laxe laburbilduko genuke gure esakizuna. Batetik, gure literaturaren nobela edo elaberriaren itxura duen lehen liburuetakoa da. Bestetik, elkarrizketaz osatua badago ere, elaberriaren haria gehiago du antzerki-lanarena baino. Bestetik, XVIII garren mende bukaerako euskal gizartearen espilu zoragarria ere bada. Azkenik, duela bi mendeko Ekialdeko bizkaieuskararen agergarririk ederenetakoa ere bada era berean.

## GREGORIO ARRUE (1811-1890) ITZULTZAILE

Bataioko agirietan Arruabarrena izan arren deitura osoa, haren idazki gutzietan Gregorio Arrue laburturik agertzen da. Hemeretzigarren mendeko hiru edo lau itzultzailerik ugari edo aspergaitzenak aipatu beharko banitu, Jean (Juan) Du-

(3) Laburbildurik agertzen dira iritzirik garrantzitsuenak A. Zelaieta *Peru Abarkaren berriakuritzea* (Donostia, Kriselu, 1979) eta Luis Mitxelena «El texto de *Peru Abarca*» ASJU, 1978-1979, XII-XIII, 201-224.orr.

voisin kapitaina, Gregorio Arrue eta Jose Antonio Uriarte aipatuko nituzke. Hiru hauetan ugariena Gregoria Arrue izango dugu, beharbada. Lino Akesolok esan ohi zuen hemeretzigarren mendeko idazlerik ugarienetakoa, baldin ugariena ez bada berau genuela (4). Guzti hauen artean, ordea, Arrue da, inolako dudarik gabe, irakurriena. Arrueren itzulpen-lanak izan dira hemeretzigarren mendean Euskal Herrietan zabalduenak. Itzulpen guztien artean, ordea, Kristobal Schmid (1768-1855) Babierako idazleak eginiko Santa Jenobeba Brabantekoaren bizitza azaltzen duena da arrakastatsuen. Liburu honek XIX. mendean Europa osoan arrakasta handia izan zuen. Garai hartako *best-seller* izan zen. Euskaraz Euskal Herrian ere arrakasta handia izan zuen itzulpen zoragarri batean agertu zelako. Euskaraz 1885ean agertu zen, Tolosan, *Brabante-co Genoveva-ren bicitz arrigarri miragarria. Cristobal Schmid-ec eguiñ eta eusquerara itzulia. D. Gregorio Arrue-c*. Itzulpen honetan oinarritu zen Juan Kurtz Zapirain Genobearen bizitza bertsoetartzeko: «*Brabante-ko Jenobeba bertso berrietan*» (5).

Fausto Arozenak zioen Gregorio Arrueren arrakastaren handia herri-hizkera indartsua erabiltzean oinarritzen zela:

«Supo en su versión prender el alma popular y traerla a mandamiento en una prosa de gran fluidez y abiertamente asequible. El éxito tenía que acompañar, necesariamente, a la empresa, y el resultado fue que no hay quizá texto éuscaro más divulgado que el de esa vida popular de la santa».

Bi dohai handi biltzen dira, beraz, gure ustez Gregorio Arruek euskara erraza, ulergarria erabiltzen du, eta era berean, euskara ona, goi mailakoa. Ez dago irakurri besterik Arruek idatzi edo itzuli zuen edozein liburu honez konturatzeko (6).

## **EUSKALKITIK EUSKALKIRAKO ARRUEREN ITZULPENA: BIZKAIESKARATIK GIPUTZEUSKARARA**

Euskalkitik euskalkirako itzulpen askotxo ditugu euskaraz. Hemeretzigarren mendetik hasita ia gaur eguneraino gure artean hizkuntza barruko itzulpen askotxo egin dira. Gaztelaniaz «traducción interdialectal» dioguna, euskaraz «euskalki-artekoa» edo euskalkitik euskalkirakoa deitzen diogu. Kontuan izan dezagun, esaterako Axularren *Gero* osorik itzuli zuela bizkaieuskarara Añibarrok. Gipuzkoako euskaraz ere badaukagu pusketatxo bat

(4) AKESOLO, Lino «Gregorio Arrue idazlearen Santa Jenobebaz zerbait» in *Santa Genobebaren bizitza* Euskal Editoreen Elkarte 1987, 23.or.

(5) Lan hau 1929an agertu zuen Makazaga erreteriarrek. Badira argitalpen gehiago ere.

(6) Ez ditugu geure lantxo honetan Gregorio Arrueren liburu-kopuru edo bibliografia osoa hona aldatuko. Horren berri nahi duenak aski du Jon Bilbaoren Bibliografia kontsultatu edo Fausto Arocenaren «La versión guipuzcoana del «Peru Abarca», de Moguel» in BSVAP, 1948, IV, 165-194.orr. eta urte bereko eta aldizkari bereko 378-379ko «Don Gregorio de Arrue Addenda»

*Euskal Eснаlea* aldizkarian. Basarri bertsolariak ere, oroit naizenez, «Nere bordatxotik» sailean egin zuen pasarte baten edo besteren itzulpena. Juan A. Mogelek berak P. G. Lavieuxvilleren (...-1734) catixima lapurdiko euskarara Gratian de Harostegui nonbait itzulia, Mendebaldeko euskarara ekarri zuen: *Christinaubaren Eracuspena edo Doctrina Christiania, ceñian aguertu...* Pierre Topet Etchahunen bertsoak ere, esaterako, frantsesera ez ezik Mendebaldeko euskarara ere itzuliak izan dira. Yon Etxaidek Yon Miranderen laguntzarekin Gipuzkoako euskarara itzuli zituen hainbat khantore. Duela urte gutxi ere Xipri Arbelbidek euskara batura itzuli zituen zuberotarraren hainbat khantore. Auspoa liburutegian ere hainbat liburu ikus ditzakegun bi euskalkitan. Liburu horiek antzerki-liburuak dira egilea Pierre Lartzabal da eta gipuzkeratzailea Manuel Lekuona. *Herriko bozak edo Nor Alkate. Lapurdiko ta Gipuzkoako euskaraz (Gipuzkoakoa M. Lekuona apaiz jaunak moldatua, 1962, Auspoa XXI. Hilla esposatu. Lapurdiko eta Gipuzkoako euskaraz (Gipuzkoakoa Manuel Lekuona apaiz jaunak moldatua), 1965, Auspoa Liburutegia XLIV eta abar. Migel edo Mikel Garikoitzen bizitza ere Lapurdiko eta Bizkaiko euskaraz argitaratu zen, 1923an. Lapurdiko euskarakoaren izenburua Miguel Garicoitz aphezaren bicitza laburzki haren cusi Etxeberri aphezac eta Bizkaikoa: Miguel Garicoits edo Garaikoetcea'tar Mikel zorundnaren bizitza bere lengusu Etxeberria'tar Yon yaupariak lapurdieraz eguiña eta J. L. Galdos'tar Erromalda'k bizkaieraz ipiñia. Era honetako itzulpenak askotxo dira eta lan luzea emango liguke ezagutzen ditugun guztiak hemen jartzea. Eman ditzagun bakar-bakarrik guri dagokizkigun Arruerenak. Nafareuskaratik giputzeuskarara itzuli zuen Jesusen biotzaren debocioa eracusteco. Jesusen Compañiaco aita Sebastian Mendiburuc nafar eusqueran aterazuan liburutic D. Gregorio Arruec Guipuzcoaco itzulia. Tolosa, 1883. Eta bizkaieuskaratik Gipuzkoakora: Baserritar jaquintsuaren echeco escola D. Juan José Moguel Marquinaco apaizac Vizcai-eusqueran atera eta D. Gregorio Arruec Guipuzcoacoan itzulia. Tolosan, 1878. Erdi-euskalkia egiten den Gipuzkoakoa ulerterrazagoa zenez gero gainerako euskaldunentzat, baztereuskalkietatik itzultzen saiatu zen gure Arrue. Baztereuskalkia da, jakina, Bizkaikoa eta Nafarroakoa baztereuskalkizat jo ez arren –jakina Zuberoakoa eta Erronkarikoa dira berez bazterreko euskalkiak–, haintzat jo daiteke Gipuzkoakoaren ikusian.*

Bizkaiko euskaratik *Peru Abarca* osorik itzuli bazuen ere, lau dialogo edo autu argitaratu ziren. *Peru Abarkak* sei baditu ere, lehen lauak bakarrik argitara eman zuen Fausto Arozenak. Denok dakigunez *Peru Abarca* sei dialogo edo autuz osatua dago eta gainerako eranskinez. DRSVAPeko argitarapena zatikakoa da, beraz. Laugarrena, gainera, ez da osorik agertzen. «jarraituko da» agertu arren ez zuen osorik argitaratu F. Arozenak. Esan beharrik ez dago euskarazko bi eranskin edo gehigarriak ere ez zituela agertu. Badago besterik ere, G. Arrueren eskuidatzitik egindako transkripzioa gaur eguneko grafiara ekarria ez badago ere, eta horri, jakina, ondo deritzagu, ez da beti fidela. Badira huts edo erratu batzuk.

## MOGELEN PERU ABARCA ITZULPENAZ

Esquidatziaren lehen orrialdean onela irakurtzen dugu: *El Doctor Peru Abarca. Catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte ó Dialogo entre un rustico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan / Obra escrita en dialecto vizcaino por el Presbítero D. Juan Antonio de Moguel y traducida al de Guipuzcoa por D. Gregorio Arrúe con algunas variaciones*. Ikusten da beraz, aldaera zenbait sartuko dituela Arruek, baina aldaera horien kontua geroko utziko dugu. Bigarren orrialdean hauxe irakurtzen dugu *Rusticus abnormis sapiens, crassaque Minerba* Horacio-ren esaldia erdaraz itzulirik «El rústico excelente sabio, y la sabia Minerba muy estúpida». Mogelek esaldi hori bere *Peru Abarca*ren hasieran ez ezik, lehenago ikusi dugun Vargas Ponceri zuzendutako eskutitzean ere agertzen zen. Behin esaldi horren ondoren ohar bat agertzen da. Hona hemen agertzen den bezala:

“Advertencia. Existiendo en poder de varias personas copias manuscritas de esta utilísima obra, llenas en general de defectos, se advierte que esta version se ha hecho del original que se conserva en el convento de los R.R.P.P. Franciscanos de Zarauz los que se han prestado generosamente á facilitarnoslo en aras del movimiento bascófilo que felizmente se desarrolla de dia en dia de muy pocos años á esta parte.”

Itzulpena, beraz, testu jatorretik edo jatorrizkotik egina dago. Ez dago dudarik datu hau erabat interesgarria dena. *Peru Abarca*ren itzulpena kopia batetik edo kopiaren koptiatik egina balego asko galduko luke. Jatorrizkotik egina izateak Arruerena askoz balioitsuagoa da.

## ZEINTZUK DIRA ARRUEK EGITEN DITUEN ALDAKETAK?

J. A. Mogelen testuan agertzen diren hitz neurtuak gehienetan ez ditu itzultzen. Hitz neurtu horien ordeaz beste batzuk sartzen ditu Arruek. Lehen autuan, esaterako, Samaniegoren ipuin edo alegia bat agertzen da. Alegia hau, jakina, testuan jarri ez arren Iturriagaren liburutik hartua da. Hirugarren autuan, Txominek, Peru Abarkaren semeak, alegia bat esaten du Mogelen bertsioan, etxeko sagu eta konpokoarena, eta Arruerenean, Iturriagaren «Euliac» Samaniegoren bildumatik egokitua. Beharbada aldaketarik harrigarriena seigarren dialogo edo autuan dugu. Seigarren honetan Indalezio Bizkarondo «Bilintx» bertsolariaren zaldi baten bizitza agertzen du, batetik, eta, bestetik, Pernando Amezketaarren bertsoak. Seigarren dialogoaren buruan honela dakar Mogelek: *Diálogo sexto Maisu Juan, Peru, el francés, el guipuzcoano, un cura y el aguacil*. Francés delakoa denok dakigu euskaldun-frantses bat dena, edo orain esaten dugun moduan, Iparraldekoa. Baxenafarroakoa da, denok dakigunez, Baigorrikoa. Gipuzkoarra Arrueren bertsioan Amezketakoa da. Amezketakoa egiten duenez gero Arruek honelako elkarizketa asmatzen du:

*Maisu Juanec:* Zureac nai aimbat edo gueyago dira, eta milla edo gueyago esquer guci oriec gatic; baña artzai au Amezquetacoa izanic, onec jaquingo ditu itz neurtu edo bersoren batzuec, eta esan nai balizquigu.

*Arzayac.* Bai Maisu Juan. Asco daquizquit, baña zure gogo asezeco esango dut bat edo beste.

Gure erritar Fernango, bersolari sonatuari Erretore Jaunac, chartela artzera joan citzayon batean bota cion zortzico au:

Esan bear didazu  
 instante batean,  
 Poltsicutic chartela  
 nic atera artean:  
 Nola sinisten dezun  
 cuc cere artean,  
 Daudela iru Persona  
 Jaungoico batean.

Fernandoc aotic ortzera eranzun cion:

Nola sinisten dedan  
 arrazoyarequin.  
 Orain esango diot  
 sagarcho batequin:  
 Usai ta saberea  
 colorearequin.  
 Orra iru genero  
 gauza bat batequiñ.

*Maisu Juan.* ¡Ori gauzaren polita: zoratua naucazute!

*Arzayac.* oraindic politagoac esango dizquitzut, azpeltu ez pacera, eta dira nic aditu ditudan guci en derrenac. Donostiacio Indalecio Bizcarrondo, icen-goitiz Bilinhec zaldi zar bati ipiñiac. ¡Aditu al dituzu?

*Maisu Juan.* ¿Naico ez ditut bada? Esan itzazu arren.

Esan beharrik ez dago, Fernando Amezketarraren bertsoen testigantza zaharretako bat ekartzen digula Arruek gaur egun bertsozale guztiek ezagutzen duten pasarte baten gainean.

## PASARTE AUKERATUAK: KRESTOMATIA

Laster argitarako osorik argitaratuko dugun Arruerean itzulpenaren erakusgarriarik onena, beharbada, Mogelen eta Arrueren bersioaren aukera bat egi-

tea litzateke. Modu horretara, begien aurrean parez pare izanez gero, hobeto erkatuko luke irakurleak. Hona hemen zenbait pasarte:

Peru: Jangoicuac egun onac emon daijozala.

Maisu Juan. Bai zuri bere adisquidia.

P. ¿Berori baisen Jaun apaindu batec oñac imini ardan-eche onetan? Toqui au guizon baldes, zantar, aciera charrecuentzat obia da, berori langüentzat baño. Ez naz ni Jauna; abarcac oñetan, chapel bat buruban, guerrestuba gorputzian; au da nire apaindurija guztija: baña echagun, icen onaren zalia nasan aldeti, ez oi nas sartu ardanteguijetan nora ecian, premiñaz, ta ecin bestez baño, ez jacolaco echagun beguiratu bati ondo eguiten buruba bat eguitia guizon ospetsu, burrucari, ondatzalle, alper, ta baldanacaz. Ez nau orainguiño iñoc icusi ardauc igarota, gach eguinda, zabuca oñac locaturic, ez miña motelduta, ez beguijac lausotuta, asco leguez euren osasun, ondasun ta arimen caltian. Bein baño gueijagotan izan nas neure errico Buru, edo Piel, ta darda gañian erabilli daruadaz ardao saltzallac belutu, edo ondo gautu artian dauqueezanian eche barruban nequezaliac, edo ate edeguijaz ardauc alduuten badabe debecauta daganu salduban. Ez deust ecec gorroto ta igüin gueijago emoten nequezale edan-sarri, ta ardao zaleguijac baño. ¿Cer esan nei bada berori emen icusita? Aserratuco ezpalichaquio jaquin gura neuque nor dan, ta cec ecarri daben ona.

Maisu Juan: Adisquidia; imini eguizu chapela buruban ta esango

#### ARRUE (DIALOGO PRIMERO)

Peru: Jaungoicoác egun ónac deguizquiola.

Maisu Juan.—Bai zuri ere, adisquidea.

Peru.¿Berori bezañ Jaun apaindu batec arandangui onetan oñac ipiñi? Toqui au guizon baldrets, zatar, gaizqui acitacoentzat obea da, berori becelacoentzat baño. Ni ez naiz Jauna; abarcac oñetan, chapel bat buruan, guerrico bat soñean; au da nere apaindurija guztia: baña guizon prestu, icen onaren zalean naicen aldetic, ez naiz sartu oi ardandeguietan, ezpada ecin bestez, premiaz eta beste nora joanik eztedanean baño, quizon prestu beguiratu bati ongui ez datorquiolaco guizon arro, burrucari, ondatzalle, alper eta baldanaquin bere burua bat eguitea. Oraindic iñorc icusi ez nau ardoac igarota, gaitz eguinda, zabuca, oñac colocaturic, ez mingaña motelduta, ez beguijac lausotuta, asco bezala; beren osasun, ondasun eta animan caltean. Beñ baño gueyagotan izan naiz nere erriko Buru edo Piel, eta laborria sartu diet ardo saltzalleai, baldin debecatuco dauden orduetan echebarruan necazariac iduqui, edo ardao saltzen badute. Gorroto eta su gueyago ecerc ematen eztit, necazari edansarri, eta ardo zaleeguiac baño.¿Cer esan nezaque, bada, berori emen icusita? Aserratuco ezpalitzayo, jaquin nai nuque nor dan, eta cerc onera ecarri duen.

Maisu Juanec—Adisquidea; ipintzu chapela buruan, eta esango dizut

deutsut nor nasan. Nas bada oraiña-go igaro dozun errico Barberuba, ta deitu nabee gaiso bategana. Pagau deuste visitaco errial cidarra; baña aiñ dollorrac izan dira, cein da ez deusten atera trago bat: alan sartu nas emen cuartillu bat atera, eta cerbait jaatera, bada urrin eguiten jat neure echia baruric, biurtuteco.

Peru. Nic uste neban bene benetaco andiquiren bategaz verba eguiten nebala; agaiti nenguan chapela buruti quenduta lotsa nintzala verba eguiten. Jaquin baneu lenengoti Barberu char bat baño etziniala, ez nintzan Jaunca zugaz egongo, ez da bere buru utsian. ¿Eta Barberu errucari bat, ta inoren gachaz vici dana; gaisoric ezpadabil cer jane z daucana, ain arro ta apaindu? Aimbeste soñoco bichidunez, eta ori astegun buru zuriyan vitez zabiltzala?

Liburuaren sarrera antologikoa jarri dugu parez pare, edo Archuk zioen bezala begiz begi. Badira hainbat gauza polit batean eta bestean. Mogelen pasartean, esaterako, ospetsu hitza agertzen da baina ez gaur eguneko «famatu» edo «sonatu» zentzuan, gaztelaniazko bullanguero edo «zaratatsu» zentzuan. Garai hartako bizkaieuskaran zentzu edo esangura zaharrean. Hona bigarren zati bat:

(MOGUEL) 61pg) M.J. Asco da zuc esatia, Peru; obeto daquizu onetaco barri, ta bazaut aserratuten bagara, escatuco deuscula pagu andiren bat bazcari char onegaiti; ta neurdin ezdeutsagu ura quenduco ardauari, ta ez dot uste beste zarguijetaco ardaua egongo dala purubagua. ¿Cer daantzut? ...Cantee-tan... Gagozan isillic cer dinuan... Peru, artu dozu goguan coplachuba?

Peru. Bai.

M. J. ¿Celan da?

nor naizen. Naiz, bada, areistian igaro dezun errico Barberua, eta deitu naute gasso bategana. Bisitaco erreal cillarra pagatu didate; baña añ dollórrac izan dira, nun churrut bat bederic atera eztidaten: ala cuartillu bat atera, eta mocadu bat jatera sartu naiz emen, bada baraurik itzulceco nere echea urruti egiten zat.

Peruc. Nic uste nuen eguiatz eta beguiatz jaun andiren batequin itzeguiten nuela; argatic negoen chapelarentzi eta itzeguiteco uzcur? Barbero char bat baño etziñala lenengotic jaquin banu, zurequin Jaunca egongo ez nintzan, ez buruutsean ere.¿ Eta Barbero onbear bat, eta iñoren gaitz bici dana, gassorik ezpadago, cer jan eztaucana, orren arro eta apañidu? ¿Orrenbeste soñeco bichidunez eta ori astegun buru zuriyan bidez zabiltzala?

(ARRUE) Maisu Juanec.—Asco da zuc esatea, Peru; oyetaco berri obeto daquizu, eta icusten det, aseurretzen baguera, pagu andiren bat escatuco digula bazcari char onegatic; eta nola nai ere ardoari quenduco eztiogu ura, eta beste zaguietaco ardoa puruago egongo dala uste ez-tet, utzi zagon au bertan beera ¿Cer aditzen det...? Cantatzen...Gauden ixillic cer dion... Peru, ¿artu dezu buruan coplachoa?

Peruc.—Bai

Maisu Juanec.—¿Nola da?

P. Ona.

Aita semiac edanda dagoz  
Ama alabac jocuan;  
Ostera bere egongo dira  
Soñoco zarrac cacuan.

M. J. ¿Nor ete da cantoria?

Peru. Nic ezdaquit; itanduco deutsagu nescatillari, ta esango deuscu.

Maisu Juan: Praisca, ¿nor da alan-gore cantore ederra?

Praisca: Aita seme batzuc jauan dira sabaira, aita catu andijaz ta semia bere bai cerbaitacuan. Ló eguiteco asmoz igon dabee, baña emon deutsa aguriac cantari. Soñulari eder bat dozu ardaoz basa basa eguinda bere.

M.J. Peru, esaidazu arren ostera versua, ta ateraco ditut papera ta tinteruba beti aldian darabildazan le-guez, escribiduco dot aztu eztaquidan.

Peru. Enzuizu bada ondo. Repite el verso expuesto y lo escribe el Maisu Juan y dice

M.J. Verso asco iracurri ditut neure aldijan erdaldunen liburubetan; baña ez berba guichitan gauza gueijago edan gura dabenic. Ai ostera cantauco baleu! Ai! asi da...Gagozan issillic.Peru artu gogozan... Cantatu ditut verso bi: ¿cer dino?

P. Ona cer dinuan

Egun baten gaba eguinda  
Nioian neure echera  
Larrapastadatar bat eguinda  
Jó neban videra.

Peruc.–Ara:

Aita semeac edanda daude  
Ama-alabac jocuan;  
Berriz ere egongo dira  
Soñeco zarrac cacuan.

Maisu Juanec.–¿Nor ote da cantaria?

Peruc–Nic eztaquit; galdetuco diogu nescachari, eta berac esango digu.

Maisu Juanec.–Praisca, ¿alaco cantari ederra nor da?

Praiscac.–Aita seme batzuec joan dira sapaira, aita catu andiarequin, eta semea ere ainbestecuez. Lo eguiteco asmoz igo dira, baña aguria cantari eman zayo. Ardoz bete bete eguinta ere, bertsolari eder bat dezu.

Maisu Juanec.–Peru, ostera esadazu arren ber-soa, eta beti nerequin darabiltzquidan tintontzia eta papera atera, eta escribituco det, aztu eztaquidan.

Peruc.–Ondo adizazu, bada. Repite el verso expuesto, y lo escribe el Maisu Juan y dice:

Maisu Juanec.–Nere bician ber-so asco iracurri ditut erdaldunen liburuetan; baña itz gutxitan geyago esan nai duenic ez. ¡Ay! asi da... Gauden ixillic. Peru, arzazu gogozan... Bi ber-so cantatu ditut: ¿Cer dio?

Peruc.–Ona cer dion:

Egun batean gaua eguinta  
Nijoan nere echera,  
Larrapastada tzar ba eguinta  
Jo nuan beeco bidera.



Jaso nenduben danau mancauta  
 Bizcar azurra ausiric,  
 Miñaren miñaz catu guztia  
 Beinguan niri igaroric.

Jaso ninduten danau mangatuta  
 Bizcar ezurra autsiric,  
 Miñaren-miñez catu guztia  
 Beingoan niri igaroric.

Oraingo pasarte honetan ere badaude hainbat gauza iruzkingarri. Ardan-degiko pasarte famatua ekarri dugu bigarren erakusgarri gisa. Mogelen garaian Bizkaiko euskararen normalak ziren aditz trinkoak «bazaut», «bakust» eta abar ez ziren gainareko euskalkietan erabiltzen. Gure pasarteko Mogelen «bazaut aserratuten bagara», esaterako, Arruek «icusten det, aserretzen baguera» dakar.

### DIALOGO TERCERO

(MOGUEL) Entre los mismos  
 Maisu Juan y Peru

(Pag 91) P. Eldu gara bada gabiltzan gabiltzan, ó adisquidia, neure echaguntzara ta jaquin eguizu derichola Landeta, landa eder baten dagualaco. Ezta guizon aldi daquigunian, eche onetara ezcondu mutil arrotz, edo beste echetacoric; belau-nic belau-nic guizon echeco semeetati eldu da nigana; agaiti aldatu ezta niganaño neure icen ondocotzat eche onen icena; alan derist *Peru Landeta-co*. Belutu jacu vidian, baña oraindiño etzirian nire emazte, ume ta otseñac oera juango. Eztauqué nire usteric gaur gabeco. Zurturic gueratuco dira nire umiac zu zacusezarian, etorri ez oi dalaco oná zu baisen guizon apainduric: iguesco dabee zoconduetara cuijac leguez.

M.J. Peru, atía jó baño leenago esaidazu arren cer da cuija?

P. Zubec conejuba esaten deutzazuna, ta esaten jacó cuija, cui cuica, edo cucuisca leguez dabiltzalaco emen urten, an sartu, burubac orain aguertu ta guero ezcutetan

(ARRUE) Peruc.—Ibillian ibillian eldu guera, bada, o adisquidea, nere echacuntzara, eta jaquin zazu, Landeta deritzala, landa eder batean dagoelaco. Guc daquigun guizalditan mutilla arrotz edo beste echetacoric eche onetara ezcondu ezta; belau-nic belau-nic echeco guizon semeetatic allegatu da nigana; argatic nigandaño aldatu ezta eche onen icen goitia; ala deritzat *Landetaco Peru*. Bidean berandutuco zagu, baña nere emazte, ume eta mirabacac oraindic oyeratuco etziran. Gaur gauco nere usteric eztaucate. Zu icusi zaitzatenean, arrituta gueratuco dira nere umeac, cerren zu bezañ guizon apañic onera etorri ez-tan; Igues eguingo dute zocoetara curcuxen guisa.

Maisu Juanec.—Peru, atea jo baño len esan zadazu arren, ¿cer da curcuxa?

Peruc.—Zuec conejua esaten di-zutena, eta esaten zayo curcuxa, emen irten, an sartu, orañ buruac aguertu eta güero ezcutatzen curcuixa becela dabiltzalaco.

Peru Abarkaran baserrira, Landerara, heltzen diren pasarteak aldatu dugu hirugarrenik. Mendian oso sartu edo mortuan dago Landeta baserrira. Pasarte honetan ere badira mila gauza markagarri. Hasierako *gabiltzan gabiltzan* esapidea, esaterako, *ibillian ibillian* itzuli du. Aditz trinko zaharrak *zacusezenian*, esaterako, *icusi zaitzatenean* ulergarriagoa jarri du.

(DIALOGO CUARTO) (MOGUEL 125 PG.) P. ¿Eztozu entzun inos praile-echeetan jazoten dana? Praile gaztechu edo sartubarriac darue nequeric gogorrena. Ezta oneentzat bigungarririk: sendo sendó, osoz osó daruez aguintu guztijac. Alan biar da, jaquin daguijen cetara juan dirian. Lenengo urtian bigunegui balerabillez, ta euren burubetan icusi бага pisu guztija, guerora esango leuquee guzurtaubac gueratu ziriala, ogui biguna eracutsi ta emonaz birzaiz eguinico balz ta jangacha. Alan bada gatzamalliac bere, izanic sartu barriac, icasten dabee neque andijen ta irabaci laburraren vitez, cer icharaten deutseen, ta gueroco obia-guaren penzudaan egonaz, igaro erraza eguiten jaquee, daruen bihar gogor ta necatsuba.

(ARRUE) Peruc: ¿Eztezu aditu iñoiz pralle-echeetan guertatzen dana? Pralle gaztecho edo sartu berriac daramate nequeric gogorrena. Oyentzat bigungarririk ezta: sendo sendo oso eta bici eguin oi dituzte aguintu guztiac. Ala bear da, certara joan diran jaquin dezaten. Lenengo urtean biguñegui eta pisu gucia beren buruetan icusi gabe balerabiltzquite, guerora esango luquete, engañatuac gueratu cirala, ogui biguñia eracutsi, eta birzayaz eguindaco beltz eta zacarra emanaz. Ala bada, mealleac ere izanic sartu-berriac, neque andi eta irabaci laburren bidez icasten dute cerc ichedetean dien, eta gueroco obearen pocean egonaz, igaro erraza eguiten zaye daramaten beargai gogor eta necatsua.

Mogel begizorroztaren ohar hau ekarri dugu adibide gisa. Fraile-etxeetan gertatu ohi zen zerbait ohartu eta bere lanean txertatu zuen.

#### EN LA FERRERIA

(MOGUEL 124 pg) Maisu Juan Jesus, ¿ce gente modu da au? Impreñuba dirudi. ¿Ce suba, ta garrac! ¿Ce erremienta, ta toqui tristiciac! Guizonen ichuracic eztauee emen dacustazanac. Ezteuscube agur bat bere eguiten. Eztauee arpeguijan balcitu bagaco gaucacic.

(ARRUE) Maisu Juanec—¿Jesus, cer gente modu da au? Impreñua dirudi, ¿Cer su eta garrac! ¡Cer erreminta eta toqui tristeac! Emen dacusquigunoc guizonen ichuracic eztaucate. Agur bat bera eguiten ez-tigute. Beltztugabeco toquiric arpeguian eztaucate.

Peru.—Maisu Juan; ¿cer uste cenduban emen ediro? ¿Guizon ederto apainduac? Beguiratu eguijezu ondo buruti biatzetara: eztabe aguiiri

Peruc.—Maisu Juan; ¿Cer topatu uste cenduen emen? ¿Guizon ederqui apainduac? Burutic beatzetara ondo beguira zayezu: beltzaren bel-

ez begui, ez betuleric baltzaren baltzaz: ederrac dirá maurubac oneen aldian. Capela igartu ta erdiquin bat buruban, zapi quedartu bat becoqui erdiraño icerdija artu, ta subaren berotasuna arinduteco. Obrera uts, idunian lotuba; ezta cer escatu jaqueric, ez calcerdi, ez abarca, ez ta pracaric bere. Oera etzuteco ta jaguiteco ez-tauquee nequeric cer artu.

ttez ez beguiric, ez bepururic aguri dute; oyen aldean mairubac ederrac dira. Chahpela igartu eta puscatu bat buruan, icerdia artu, eta suaren berotasuna arintzeco zapi quedartu bat becoqui erdiraño. Obiera uts, guerrian lotua; ezta cer escatu ez amillaric, ez galtzerdi, ez abarca ezta galtzaric ere. Oyera etzateco eta jeiquitzeco nequeric artu bearric ez dute.

Oletako pasarteá, guk dugun euskarazko garai bateko olen deskripziorik indartsuenetakoa da. Horra irakurlearen ahogozagarri bi testuok zutabetan:

MOGEL(DIALOGO SESTO):

Maisu Juan-Jaungoicuac osasuna emon daguizula, baña gaisotuten bada zure echeoric edo vici nasan errijan ezer biar bacendu, ez besteric billatu. Chacur zauncac dira...Olesa da, nor ete dogu?

Peru.-Zuaz nor edo nor, cein dan icustera: une ezin obian dator; bada jarri baño ezdauca geugaz maijan. Nor da?

Txomin.-Izerdi bitsa darijola dator ona gizon bat escopetiaz, ta aita, dino, zu biar zaitubala.

Peru. Datorrela aurrera...Adisquidia, nor zara ta cer biar deustazu?

Aguazil: Ni nas justizijaco aguazila. Artu dot arrastuba ta esan jacu onuntz etorri dala barberu ondo apaindu bat, pantaloeduna ta moda modara jancija. Nun da bera? Era-cutsico jako zelan vizi.

Peru.-Estago neure echian beste guizon gauzaric emenche gagozanac baño; alperric aratuco dituzu zocondo ta bazter guztiac.

GREGORIO ARRUE:

Maisu Juanec.-Jaungoicoác osasuna dizula, baña zure echeoric gassotzen bada, edo bici naicen errian ecer bear bacendu, ez besteric billatu. Chacur zauncac dira... Olesa da, ¿nor ote degu?

Peruc.-Bat edo bat zoazte, ceñ dan icustera; une eciñ obean dator; bada gurequin mayean jartzea baño eztauca ¿Nor da?

Chominec.-Icerdi patsetan dator onera guizon bat escopetarequin, eta, aita, zu bear zaituela dio.

Peruc.-Datorrela aurrera... adisquidea, ¿nor cera eta cer bear didazu?

Juraduac. Ni justiciaco juradua naiz. Artu det arrastoa eta esan zagu, onuntz etorri dala ondo apaindutaco barbero bat, pantaloeduna eta moda-modara jantziya. ¿Nor da bera? Era-cutsico zayo nola bici.

Peruc. Nere echean eztago emen gaudenoc beste guizonic, alperric beguiratuco dituzu zoco eta bazter guciac.

Aguazil. Eztaguala? Guzurra badinozu ceuc bere etorri biarco dozu carzelara.

Peru. Egizu naozuna; billatu eizu albadaizu. Orra eche guztija jaube baciña leguez; eztago besteric emenche gacusuzunac baño...

(Registra la casa el alguacil y entre tanto le habla Maisu Juan a Peru al oído lleno de pavor).

Maisu Juan.—¡Ai Peru neuria! Galduba nas. Osatu zan atsua; emon dau querellia; artu ditube informazioe batzuc. Ventako otseñac saldu nau. Igarrico deust neu nazala, ta dongago dana, zu bere eruango zaitube preso erru бага.

Peru.—Zagoz gueldi gueldi zurbildu бага; ez aguertu bildurrik. Zure zorionian aldatu zenduzan soñocuac. Nire emazte ta umiac isillac dira; bestioc ezdaquje ez nor zarian, ez cer igaro dan; echako zure atzian etorri danari burura etorrico zu zarianic; iminiko dogu gura badau gueugaz bazcaitan, ta ez arren icararic eracutsi ta jan eguizu ardura бага. Juango da etorri dan bideti zu бага.

Horra azkenik azken dialogoko bi testu aukeratu.

Juraduac.—¿Eztagoela? Guezurra badiozu, ceuc ere etorri bearco dezu carzelara.

Peruc.—Nai dezuna eguizu; al badezu billa zazu: orra eche guzia bere gabe baciña becela eztago emenche gacusquitzunac besteric.

(Registra la casa el alguacil y entre tanto le habla Masi Juan á Peru al oído lleno de pavor)

Maisu Juanec.—¿Ai Peru nereal! Galdua naiz. Atsoa sendatu zan: queja eman du; artu dituzte informacioac. Bentaco nescameac galdu nau. Iguerrico dit neu naicela, eta gaistoago dana, zu ere eramango zaitue preso iñolaco erru gabe.

Peruc.—Zaude gueldi gueldi zurbildugabe, ez aguertu bildurric. Zure zorionean aldatu cinduen soñecoac. Nere emazte eta uméac isillac dira: besteoc eztaquite ez nor ceran ez cer igaro dan; zure ondoren etorri danari etzayo bururaco zu ceranic: ipiñico degu, nai badu gueroquin bazcaritan, eta ez arren icararic eracutsi, eta jan zazu ardura gabe. Etorri dan bidetic zugabe joango da.

## ZUBEROTAR IRRI KONTAKIZUNA: PERTSONAIAK, JARRERAK, EGOERAK

Eibar, 2002-XI-28

*Txomin Peillen*

Ezker eskuin entzunez eta batik bat Allande Elixagarai ligiarra, antolatu nuen bildumaz baliatuko naiz. Berriemaile hori ipuin kontalari ezteietara konbidatzen zuten. Moda zaharrekotan, kantuak, bertsoak eta ixtoriak ematen ziren ezteietan eta bakarrik azkenean musika. Orain haseratik beharriak hausteko txarangak jasan behar dira eta ixtoria horik gehienbat beste lekutan ematen: ihiztarien artean, muslarien artean, ostaturan, hots, gizonak topatzen diren lekutan esaten dira oraindik botoila on edo txar baten inguruan jendea eserita dagoenean; emakumeak ez dira atzerago egoten, hauk ere beren arteko kartakan eta txiste, zirto kontaketan trebeak dira. Hona hurbilketa gisa nola ikusiko dudan gaia, liburuan dagoena ez errepikatzeko: irribarrea sortzen duten pertsonaiak, jarrerak, egoerak, eta erantzun bitxiak ikusiz. Noski askok esango didate hau nire herrian kontatzen da edo Fernando Amezketarraren ipuina da, ezen ipuin herrikoi anitz hari egoizten zaizkiolako.

Ipuinak oso ederki bidaiatzen dira eta neronek lehengusu baten ahotik Pierre Larraine Bentaberrikozareren ahotik, Bocaccioaren ipuin baten zuberotar aldaera bildu nuen eta Allande Elixagarai zenak eman ipuinetan bizpahiru frantsesetik ikasiak dira. Allandek bere herrixkako ipuin kontaketaen egoera honela iruzkindu zidan «Ligin hogeita hamar urtez peko gazte haboroenek, laborari seme izanik ere, ez peitakie uskararik, beren ixtoriak frantsesez tük. Nik ere frantsesez badakitatzat bena eztütük bethi uskaraz ontsa ezarten ahal eta hik uskarazkoak nahi'tük.»

Zubereraren klasetxea eman behar dizuet, euskalki hortan «sonrisa»ri *erri* esaten dugu eta «risa, carcajada» ri *erri handi*, *erri karkaza*, *karkaza*. Aipatuko dizkizuedan kontakizunetan kente anitzetakoak izango dira, humoretik, irkaitzeraino, ironiaren gaindi ibiliz.

Kontakizun batzuk, ipuinak izango dira; besteak zirtoak, txisteak, zubereraz dritxo izenez ezagutzen ditugunak. Hain zuzen Domenika Hardoienero auzo zirtolariaz oroituko naiz, sarritan minbizitik hiltzen ari zela, karkaza egiteko ixtoria eta dritxo batzuen kontaktea eskatzen baitzidan.

Gizonek non ikasten zituzten ipuinak? Zaharrekin lehenik, baina soldautzan ere bai, eta batzuk irakurriak; andreak kantuak eta ipuinak serorekin ikasten zituzten, zeren garai luzeetan etxekandregaiak monjekin eskolatzen ziren. Oso gazteak ziren ikasleak eta nesken isilarazteko kantuak, txisteak eta ipuinak erabiltzen zituzten eta serorek batzuetan nonbait irakurriak eta denak ez ziren moral hitsekoak. Noski kanpotikako ipuinei euskararen eta baserri kutsuaren gatza sartzen zieten, gero zirtoak inprobisatzen ziren eta ez zen kantopotar iturrien beharrik: Santa Graziko auzoekin ia beti zirto egiten gabiltza gero ahaztu, edo idatzi gabe uzten.

Nire ixtorien iturriak laburzki emango ditut. Hona nor diren ipuin kontalariak. Liburuekin hasiz A.E. Allande Elixagarai, iturri nasaiena izan zait eta elkarrekin egin genuen *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak* (A.E.) liburu bilduma, bildutako ixtoria batzuk jadanik R.M. Azkueren *Euskal Erriaren Yarkintza* (R.M.A.) liburuan irakur daitezke. Gero Jean Michel Bedaxagar(J.M.B.), Pierra Bentaberrikoa (P.B.), Joanes Dordorragea (J.D.), Mainer Elixagarai (M.E.), Domenika Hardoi (D.H.), Maite Berrogain Ithurbide (M.B.I.), Pierra Oihanart (P.O.), Joanes Peillen (J.P), baita Ziberoako Botzak argitaratu kaseta.

## ERANTZUN BITXIAK

### Dotrinako pasarteak

#### 1. Oroimen motzeko haurra

Ume bat, oso urduri, katiximara zoan errepikatuz «zer da heriotza,? zer da ezkontza? «Zer da ezkontza? Zer da heriotza,» «eta abadeak galdetu zionean zer zen ezkontza «jauna arima korpützetik bereztia» (A.E.)

#### 2. Urteko eliza jaiak

Ipuin hau beharbada Euskal Herrian zabaldiena da. Beste ume bati apaiak galdetu zion:

«zoin dira Elizaren urteko lau besta handiak?»

Erantzuna: «Jauna, Bazko, Pintakoste, Andre dena Maria eta..eta..»

Eta laugarrena? «Jauna, etxen zerriaren ehaitea». (A.E. eta J.D.)

## Haurren ausartziak

### 1. Hika apaizari

Santa Grazin bazen familia bat denek hika hitz egiten zutena eta haur zaharrena katiximara agertu zen abadeari hika eginaz. Apaizak gurasoak deitu. Abadeari ez zaiola hika hitz egiten. Zuka hitzegin behar zaiola apaizari eta ume-ari irakats ziezaiotela. Eta egun batez zuka hasi zen abadeari eta hark galdetu

«Ederki ikasi düzü züka egiten» «Bai jauna, aitak erran *ditadak hirekin* züka ari behar düdala eta hartakoz *hiri* züka mintzatüko *nitzaik*». (A.E.)

### 2. Kaka jaun erretora

Dotrinara beti berandu zetorren neskari esan zion abadeak— eta hau benetakoa da—: «Haurra, ontsa askaltürük horra zira arraultz eta xerri trantxa janik».

Eta hark erantzun:

«Kaka, jauna! arto ta gerezi». (A.E.)

### 3. Haurrak gaizki ulertua

Apaizak erran zuen mezan: «Eliza gure ama da». Eta behin giltzainaren semea, Elizako atea zabalik ikusiz, oihuka apaizaren ikustera joan zen

«Jauna! jauna, aita bortüala joan düzü, ‘ama’ eztizü giltzatü, ‘zabal-zabalik’ zure haidürü düzü». (A.E.)

### 4. Haur metaforazalea

Behin ume hari etxeko berriak galdetu zizkioten.

Zertan ari zen aita eta hark ontsa zirenak gaizki jarten (erran nahi zuen beren belardian sartu auzoko behiak kentzen).

Eta aitona zertan jarduten. Hark borda gibelean ehizen, hatzamanak oro uzten eta besteak bizkarrean ekartzen (erran nahi zuen arkakusoan ehizan ari zela).

Eta arreba? «Erriz egin züana, nigarrez desegiten (atseginetan egin zuen haurra egun hartan sortzen). (A.E.)

### 5. Zeinek handiago

Gurasoek ume bati esan zioten, elizan, besteek bezala egin behar zuela, belaunikatu, zutitu eta denak. Urrundik zetorren eta haurrari biderako talo bat eman zitzaion. Sagara denboran apaizak bi eskuekin ostia hartu zuenean,

umeak boltsatik taloa atera eta altxatu zuen esanaz: «nik zurea beno handia-goia dizit taloa eta eskü bataz eraikitzeke kapable nüzü». (A.E.)

## Jendeen hizkuntzazko hutsak

Diglosiaren inguruko ipuinak ugari dira lehenago euskaraz gaizki hitzegiten zutenaz trufatzen zen, orain, gehienetan, frantsesez gaizki egiten dutenez eta gaizki ulertzen dutenez barre egiteko. Frantsesez, ordea, ezjakintasuna eta erabilera gaizki dabilta. Irratietan eta telebistetan erdaldunek zernahi txistegai ematen dute.. Baiona *Pyrénées Orientales*tan ipintzen dutenean edota esaten Euskadiko hauteskundeetan Henri Batasuna (sic) ez dela hautatua izan. Muga gaitezen euskal alorrari.

### 1. Egur batekin izorra

Behin Altxürüküko neska bat joan omen zen ezkontzatik kanpo eduki haurren erregistratzera. Orduko herri idazkaria, trufakaria zen eta neskak –garai hartan nesken artean moda sartu zelako– frantsesa zekiala erakutsi nahi izan zion:

Bonjour Bernard  
Ba zuri ere eta zer düzü?  
On a eu l'enfant (haurra eduki dugu)  
Nor dü ama?  
Moi, certes moi Mañaña (Ni prefosta, ni Mañaña)  
Aita nor dü?

Eta frantsesez aita eta senar berdin zelakoan neskak erantzun:

Fait sans père (Aitarik gabe egina).

Eta Herriko idazkariak ihardoki:

Egür arrail batekin egin düzü.

## Apaizen ustegabeko hitz akatsak

### 1. Apaiz gorrarena

Santa Graziko apaizak Elizabestako mezan santaren errelikia mun egitera, pot egitera, aurkezten zuen eta bakoitzak zerbait opari ematen. Andere txiro batek opil txikia ekarri zuen eta lotsaz puzker egin. Abade gorrak esan zuen goratik:

«Aurten txipi egin badü daigün urthean handiago eginen deizüe».

Puzkerra zela eta eliza irribarrez lehertu zen. (A.E. eta R.M.A.)



## 2. *Idortea ez da idorreria*

Behin idortea zela eta Ligin gomutatu zitzaaien ez zutela Uzten benedikatzeko prozesioa egin eta eguna joana bazen ere apaizak onartu zuen egi-tea euria itzul zedin. Apaiz berria zen eta zubereraren ñabardurak ahaztu zitzaizkion, *idortea* bada legortea *idorreria* hestetako gogordura da, eta zeruari prozesioaren erdian eskatu zionean Jainkoari:

«herria idorreriaz libra ezazü».

Jende guztiek ihes egin zuten eta sasi oihanetan galdu, zirrinak jota hes-teen askatzera. (A.E. eta R.M.A.)

## 3. *Gizon eta emakumeak nahasian*

Beste behin apaiz bat kezkatua zegoen gizona zegoen goian erabiltzen zituzten galeriak ustelduak zirela eta erortzeko punduan. Igande batez sermoian esan zuen «galeria horik berritu beharrak dütügi bestelan laster gizonak emazteen gainean nahasian eroriko zirade». Sekulako irribarre algarak iraun omen zuen edo zubereraz esateko «karkazaz irailirik egon ziren». (J.D.)

## 4. *Preposizioen etsaia*

Y. herrian bazen gizon bat frantsesa euskaratu zuena eta behin honela per-pausak atera zizkion, erdaldun batek nora zoan galdetu zionean.

Moi je suis le chocolat le type. Ni naiz txokolate morroina.

Notre femme (s'est) levée (ce) matin et moi (je dois) aller cabane.

Gure emaztea(sic) goizik jeiki eta ni artzainolara. (A.E. eta J.D.)

«Gure emaztea» zioenean ez zen okerrean gizona, zeren emazte kolekti-bo horrek izan zituen herriko azken zintzarrotsak.

## 5. *Zu zara alua, andre maitea*

Ligi Eskapilako hotolean Batista morroinak andre handi baten maleta loka okerrean sartu zuen, eta andreak esan frantsesez:

–Baptiste vous êtes un imbécile (Batista tontoa zara)

–Non c'est vous le con, chère Madame (Ez, andre maitea, zu zara alua)  
(J.D.)

## APAIZEN JOKABIDEAK

Jendeek bazekiten abade gehienek ongi jaten zutela, batik bat Adorazio-ne izeneko beren bilkuretan, eta janari eta edari hoberenak on zitzaizkiela. Gainera jendeek diote jatean apaizen gisa egin behar dela isilik egon, ongi ires-teko. Abade mahai horien inguruan ixtoriak daude nola apaizak, apaiz ez zirenen bizkar barre egin nahi zuten.

### 1. *Zurgina eta haren semea*

Behin apaizetxean zurgin batek eta semeak lan egin zuten. Eta abadeak aita baizik ez zuen gonbidatu bazkaltzera. Bazkari hasieran zurgina goratik hasi zen otoitzean «Aitaren eta izpiritu santuaren izenean halabiz. Aitaren eta izpiritu santuaren izenean halabiz!» Abadeak esan zion «semea» ahaztu zaizu. A! semea atearen ondoan zain zegoela ihardetsi eta apaizak bazkaltzera deitu zuen, semea.(A.E.)

### 2. *Txerriak titi eskas*

Beste behin horrelako dritxolari, koblakari bat deitu zuten adorazio-neko bazkari alaitu zezan baina ez zioten jatera ematen. Orduan lehen ixtoria hau esan zuen» «Behin Zerri ama batek hamabi hüme izanik, hameka titi baizik ez zizün».

Eta abadeak galdetu Eta nola egin zuen? Orain nik bezala: «besteek ja-ten züen artean so egon». Eta mahaira gonbidatu zuten zirtolaria. (A.E.)

### 3. *Hiru amuarrainak*

Behin apaizak gizon zirtolari ezaguna bazkaltzera konbidatu zuen. Hura lehenik sukaldetik igaro zen eta hiru amuarrain ikusi, txikia, ertaina eta handia. Bazkari garaian amuarrain txikia ekarri ziotenean, hurbildik arrainari hizketan hasi zitzaion ahapetik. «Ameriketan dudan ene familiaren berri badakizia? Eta apaizak, «zer dio arrainak?» Bera ez dela oraindikan itsasoan ibili baina beharbada sukaldean handiago bat egongo dela Atlantikoan ibilia.

Ekarri ziotenean amuarrain ertaina, berdin «Ameriketan dudan familaren berri badakizia? eta zirtolariak Jauna itsasoan ibili düzü bena ez hain ürrün, sükaltean badizü lagüna Ameriketara heltü dena.

Ekarri zioten arrain handia eta zirtolariak arrainari galdetu Ameriketan egon zenez. Bai eta hango familiaren berri onekin zetorrela. Hori erran eta gogo onez jan zuen arrain handia zirtolariak. (A.E.)

#### 4. *Apaiza eta auzapez jauna*

Abadeek behin alkatea, jaun mera, adorazioneko bazkarira gonbidatu zuten eta zeukaten eskolaren bidez hartaz trufatzea pentsatu. Oilaskoa etorri zenean latinez zatia eskatu behar zela erabaki zuten. Eta frantses latinizatuan batek esan zuen «ailus» eta hegala hartu, bigarrenak «cuissus» eta izter bat hartu, orduan merak, «corpus» esanaz, gelditzen zen oilasko osoa hartu. (A.E.)

#### 5. *Bera mintzo*

Abade guztiak ez dira hain zekenak. Batek, baitzekien ezagutzen zuen bertsolaria edo diogun koblakaria ardozale fina zela, bazkaltzera deitu zuen.

Lehen ardo bat hartu zuten. Bertsolariak klikez edan zuen eta «zer diozū hortaz», apaizak. «Ardu ejerra düzū».

Bigarren ardoa bazkari erditan eman eta «zer diozū?» «Hun düzū» (Ona da).

Hirurgarren ardo hoberena azkenik eman eta koblakaria isilik, lasaiki edaten. Eta hontaz eztüzü deus ere erraiten? «Ez hau bera mintzo da, jauna». (A.E. eta R.M. Azkue).

## IXTORIA SANTUAK SECUNDUM ZUBEROA

Lehen Jupiter edo Maria Mundukori egoizten zitzaizkien menturak kristautau ziren Euskal Herrian eta Kristori eman. Hona batzuk:

### 1. *Espainian ez da bakerik izanen sekulan*

Euri egun batez eta ibai bat urez handitua zelarik Kristo ertzean egon zen ezin ura igaro, ez ibirik, ez zubirik. Han zegoen espainol batek esan zion:

«Bizkarrean har-eta eroanen zütüt huraren beste gaintiala».

Hala erran hala egin eta haraintian Kristo lurrean pausatu züanean, Jau-nak erran zion:

«Eskerrik hanitx eta sari bezala egizü bi boto eta agitüko düütüzü».

«Jauna Espainarentako nahi nikezü ogi huna, ardo huna eta bakea».

Eta Kristok erantzun bi boto erran ziola eta geroztik Espainian bada ardo onik, ogi onik, baina hirugarrena bakea Espainiak ez du ezagutzen. (Allande Elixagaraik, (AEk) kontakua baina liburuan agertu ez zena).

## 2. *Bearnesen jatorria*

Bide aspergarrian zebiltzan lurrean Kristo eta Jaun Done Petiri. Bat batean oinaz harri bat jo zuen Petirik eta esan:

«Ala Jinkoa! Jinkoa!» Kristok: «Otoi! ez holakorik ene aitzinean!».

«Bena jauna harri hori ezdeus düzü, eztüzü deusetarako hun!» «Ago harri horrekin eüskalduna eginen diat».

Bidean joan ahala, bidea ez zen hobetzen eta hona non Petirik oina behi korotzean sartzen duen:

«Kaka! Jauna hau ere eztüzü deusetarako hun» Kristok: «Ago! ago! hunekin bearnesa eginen diagü!»

## 3. *Nola Jaun Done Petirik ez zuen zaldirik izan*

Bidaje lüze bat eginik Jaun Done Petiri, Kristoren Santxo Pantza bezala, zamari ametsetan zebilen eta galdetu zion Kristori nahiago zukeela zaldi bat balu haren gainean ibiltzeko eta Kristok nahi izanez geroz agerraraziko ziola, baina horretarako pentsamendua bestetara sakabanatu gabe Aita gurea osorik erran behar zuela:

«Aita gurea zelüan zirena.... egin bedi zure nahia».

«Jauna, zaldiak zaldi alkirik izanen ote du?».

## APAIZEN GELARIAK

Ipuin askotan apaizen gelaria neutroa da. Beste batzuetan ohe laguna ere.

### 1. *Gelaria apaizaren interesak zaintzen*

Santa Grazi Ibarbürüko nausi zaharra emazteak manaturik apaizari bi oïlaskoren ematera joan zen. Emaitza hura abadeari zuzenean utzi behar ziola eta, apaiza idazten ari, gelariak jarriarazi zuen eta «denboraren inganatzeko» ogi eta gazta jatera eman. Ibarbürüri gazta zati bat edo ogi zati bat gelditzen baizitzaion, bukatzeko bestetik zerra berri bat hartzen zuen eta gelaria arren-guraturik gazta guztia jango ziola, erretorari kontatu zion; hark Pierraniri esan zezaiola, gazta hark totelarazten, motelarazten zuela «A ordüan gazna hunek motelarazten badu, ondarra etxekandreari eramaneko diot» eta etxera joan zen gaztaren beste erdiarekin.

(A.E eta D.H.).

## 2. *Gelariak gaizki ulertua. Asukre matxardak komunean*

Horra nola garaian garaiko giroari dagozkion esanak eta ipuinak eta filosofia bera, edo dena delakoa, berritzen diren. Horrelatsuko zerbait adierazi nahi luke «Herriaren memoria lanbidez lanbide berritzen» delako izenburu horrek.

Bestelakoren bat ere izan zitekeen. Adibidez, «Aroz aro herriaren memoria berritzen», edo horrelatsukoren bat. Izan ere, lanbidez lanbide ez ezik, pestaz pesta ere berritzen baita EUSKALDUNAK poeman herriaren memoria kulturala eta beraren herritasuna. Eta pesta asko da poeman, beste noizbait esan izandu dizuedan bezala. Eta haietan ere, eta nola!, berritzen da «Herri baten arnasa» delako hura.

Hala ere lana dela uste dut hobekien nabarmendu arazten duena Herriaren izaera eta kultur-transmisioaren eskola. Eskuak eta hortzak eta gerriak eta ia dena zeregin batean ari delarik, buruak eta bihotzak hornitzen dituen kultur-gintza eder bat ageri da hor. Eta lanbide edo egiteko bakoitzari dagokion kultur-zumu hori Orixek bere lekuan txertatzen digu paregabeki.

### «Txerri-iltzea»

Hori du izena poeman, «Olentzaro» izena duen kantu bateko zati haundi batek. Eta neri, gure kultur-gintzaren herri-pedagogia hau aipatzean, beti zati



hau etortzen zait burura. «Baina hori ez da lanbide bat» diokezu zuk, entzule. Eta egia. Zeregin bat, edo egiteko bat, bada, baina lanbidea...

Ez dugu alperrik esaten, bestela, txerria hildako astea eta ezkondutako urtea direla, asterik hoberena urtean eta urterik hoberena bizitzan.

Bigarrenaren berririk ez dugunok ere aitor dezakegu hala dela txerriaren hori. Lanbide izatekotan, «Bizkaiko txerriaren» hura izan zitekeen. Gurea luzaroan espero izandako egun biribil bat izaten zen.

Eguberri biharamuna dute hautatua EUSKALDUNAK poemakoek. Hala dio Orixe kontalariak:

«Biamonez dei dute arakin Potxolo;  
beste arakiñik ez da auzo guzirako;  
urtaroaz jan oi du amaika amen goxo!  
galtzen ertzetik sabel-zorroa dario».

Ez dago alperrik galdua gure Potxolo: «galtzen ertzetik sabel-zorroa dario».

Ez da bakarrik: «Sei gizon -dio- eira dira: kurruxka jakina / bezperako barauaz barnak eragina». Aterako du haundiagorik, Txonko zar buru dutela, bost gizonek heltzen diotenean eta maira jasotzen dutenean.

Bada entzun duenik txerriaren kurruxka. Hona:

«Mari ta Matxin, amar ta amabi urteko  
–besteak illak ziren anai Txortxiz gero–  
biamonez ez daude lotan egoteko,  
txerriaren kurruxka entzun duteneko».

Baina haurra burruka hark ikaratu egin ohi du, eta gure txiki hauek be-larriarekin segitzen dute aldi batean txerriaren garraisi hotsa. Baina laister hara:

«Txerriaren kurruxkak goiena jo dute;  
gure bi xenideak laister dirade erne;  
ezin-jekia botaz ta harekin maindire,  
jantzi-arin dioaz otzak bildurtzeke».

Horra hor haurrak urteko goizik ahaztu ezineneko batean. «Jantzi-arin» dioaz. Zenbat aldiz egin ote genuen, eta ikusi izandu ote dugu, eta esan ote zitzaigun eta esan ote diegu, honelako edo horrelako jazteko hoztu gabe. Berriz agertuko dira txiki hauek txerriltzekoan. Guk esan ohi dugun bezala, gero ageriko Pello Gabiriko».

Eta beste pertsonaia bat, nahi eta nahi ez hor behar duena, amona da. Hark egin behar ditu odolkiak, eta horretarako aurren-aurrena zaindu behar dena, odola da. Bere iturritik bero datorren odolari ez dago bere horretan uz-

terik. Matazatu egiten da. Eta hori gerta ez dadin eta gero odolkiak zerekin egina izan dadin, horra amona:

«Amona asi da besoz odolak iraultzen,  
ez ditezen mamitu odolki baino len;  
noizik mordoka batzuk ditu ateratzen  
–mullaztarra garbarik ala du bereizten–.»

Haurrak eta amona horra hor beren tokietan. Hemen oraindik elkarren-gandik aparte dabilta. Elkarrekin ikusiko ditugu gero beste zeregin utzi-ezi-nezko batean.

Bada besterik ere bildu denik txerria hiltzerakoan, bai bihankako eta bai lauhankako. Hona:

«Ijitoa agertu da katua hainbat usu:  
«Egun onik! Txerrian txintxurra baduzu?»  
arekin inguruko puska-muskak nai-tu...  
katuak ere bai, ta gaur ezin ukatu».

Gaur bada denentzat.

Gizonezkoak txerri-lanak egiten ari dira. Hura erre, gero garbitu, hurre-na ideki eta hustu, jasotzekoak jasoz eta baztertzekoak baztertuz eta lurpean sartuz. Eta ikus azken hondarretaraino nola garbitzen duten eta gero zer egi-ten gure lahunkakoari:

«Burruntzaliz, barrengo odolak bildurik,  
zizkuetako tantak zapiz txukaturik,  
bera beteko aga sartuz okozpetik,  
seien artean arin jarri dute zutik».

Horra erakusgarri gure txerria. Eta hona Orixeren begietan zertsu diru-dien gure «Ortzuri»k:

«Badirudi zerriak artza dantzaria;  
bainan bakarrik ezin dagoke geldia-  
dantzari-laguna du oin-abe zutia,  
gaurko zeinbait dantzaren irudi egokia».

Eta lan horiek bukatuta gizonezkoak gosaltzera doaz patxara ederrean. Izango dute astia hura hoztu bitartean.

Aldi berean odolkgileak han ari dituzu munduko arretarik haundienaz be-ren lanean. Hona:

«Garazi'k eta amonak eskuak bete lan  
puxkarik goxoenak aitzoz txikiketan.  
Onkaillu usai-ondunak odolaz batean;  
alako odolkirik ez egiten bestetan».

Eta gaia prestatzeak lan badu eta betetzeak zer esanik ez, hurrengoak ere badu berea. Hona:

«Pertzean sar, irakin, orratzaz ziztatu  
–aien kezka guzia, ez ditezen lertu–;  
igaz –gogoan dute– legortxo gertatu,  
ta aurten eze-gurian sasoia nai artu».

Gizonezkoek haiek baino kezka gutxiagorekin gosalduko zuten. Eta haurrak ere trankilago egingo zuten jolas maskuri hustu eta puztuarekin, egun hartan zeukaten egitekoaren pozetan.

Prest dira odolkiak, eta bazkolondoan badator ordua haiek partitzen has-teko. Bitan esan beharrik ez dute, goizean «jantzi-arin» txerriaren ingurura bil-du diren haiek. Ikus:

«Odolki-banatzeko pozez bi xenide,  
amonak esanera doaz etxez-etxe.  
Gogoan eukitzeko beintzat “Zimelene”;  
–andik besterenera ez baiteramate–.

Eta

“Odolkia ordainez” Euskalerrietan;  
“To, gero ekartzeko” diote bestetan».

Lege horren arabera, «Zimelene»ra ez dute eraman behar odolkirik. Ho-rretan konforme dira. Hor ez dago konpondu ezinik. Beste zerbaitekin dute auzia, eta tema, eta takela. «Mutikoak, Urliren etxera nai joan; nexkak ere, beste etxe bat nai du aukeran». Txikiak dira, baina ez daukate ahazturik «Ba-tean ur-intxaurrek ematen ttutela; bestean piku ondu ta sagar ximela». Eta gure txikiak teman odolkiak partitzerakoan.

Amona, berriz, jendetasunez nola ibili behar duten erakutsi nahian. Hara:

«Amonak: etxeetan mintza ditezela  
“Egun on” ta “bai, andre”, gutxia ar dezatela».

Edo Lapurdin omen dioten bezala, esateko odolkiak eskaintzerakoan «Gutiz ez utz» polit hura. Guri, berriz, «gauza gutxi zela, baina borondatea ikusteko» esateko esaten ziguten.

Eta amona jendetasunezko formula horiek erakusten gure txikiei, beraiek sagar ximeletan eta ur-intxaurretan pentsatzen dauden bitartean «lehengo ur-tean zu joan zinen. Aurten neri tokatzen zait» –eta elkarri eginez teman.

Gure amak ere hala bialdu ninduen ni behin Zapateriko amonari berorika hitzegiteko gero esanez. Gaztelu olerkariaren ama zen hura, eta gure amaren izeba. Hangoak ez dakit nola kunplituak izango nituen; baina etxera etorri nin-zenezan, eta amak zeintzu zeuden etxean galdetu zidanean, «Berorika-ta» eran-

tzun nion nik. Haurrak ere bere modura jasotzen ditu guk esandakoak eta erakutsitakoak. Orixeren EUSKALDUNAK poemako hauek ez dakigu nola jasoko zituzten amonarenak.

Horra Orixek goxoki sartu txerrihiltze inguruko esanak eta ohidurak eta bat eta beste Garazik eta amonak estean puxkarik goxoan bezalaxe. Haur horiek, haundi egin heinean, hartu beharko zituzten geroan odolkiak partitzea baino erantzukizun haundiagoak txerrihiltzerakoan, eta ikasiak zituzketen lanbide horri zegozkion esanak eta izanak eta guztia, batere behartu gabe eta ikasketa apartekorik gabe. Eta gerora, txerrihiltzea zeinen festa gustagarria den probatu eta gero, eta bera beteko agan zutik jarri duten artza iduriko horrek zenbat puxka goxo duen dastatu eta gero, haiek ere esaten ahal zutekeen Txomin Peillen jaunak bezala «Aintza xerriari!». Nik errepikatzen dut behin baino gehiagotan.

### «Artazuriketa»

Artoa. «Horrek kentzen du Euskalerriko / nekazarien gosea». Horrela definitzen da artoa, nik dakidala euskaraz inoiz artoari egin zaion kanturik miresgarrienean. «Artoaren nekea» du izena kantuak eta EUSKALDUNAK poeman dago, ARTAJORRA kantuaeren barnean.

Baina gure gosea hiltzen hasi aurretik, artoak lan bat du: zuritzea. Txorriek eta basurdeek eta zerriek eta horrelakoek ez daukate lan hori egin beharrik, baina guk bai.

Lan horretan laguntzera biltzen da gazte jendea gauetan, batez ere jendez urri xamar dabilten familietan, gaur batean eta bihar bestean. Horri esaten zaio «artazuriketa» eta Orixek kantu oso bat eskaintzen dio lanbide horri bere EUSKALDUNAK poeman. Jakina den bezala, Uitziko Errekalde beserrian azizuten gure Orixe, eta hangoa kontatzen du poeman.

Egin da artoak zuritzeko bilera Errekalden, eta ohi den bezala, hartaz eta hontaz hitzeginez hasten da lagunartea; baina gazteak bi amets omen dituzenez, hots, «andre eder haundiki ta kutxa bete diru», laster biltzen dira kontu horietara. Ikus nola:

«Bakarra zen atxomotxa kontu-eder-kontari.  
Gazteak aixuka dute bat dezan ekarri.  
Uka-muka haundirik gabe lotu da lanari,  
zerbait asma baleza gazteen pozkarri.

Jakiña, gazte-jendeak bi ametsok ditu:  
andre eder haundiki ta kutxa bete diru;  
ba daki nondik asi eta non bear bukatu.  
Begi-belarri ditula beregana lotu».

Eta hor hasten du gure atxomotxak ipuin eder horietako bat. Barbier zenaren «Ichtorio michterio»etan agertzen omen. Zinez ederra benetan eta antzesteko erreza eta aparta, eta nik inoiz antzestua ikusi ez dudana. Egingo lukete irririk gure haurrek ikusiko balute. Honela da ipuina:

«Errege baten alaba bein batez eri zen;  
 –meriku, sorgin– iñortxok senda etzezaken.  
 Aren inguru, zoraluz, alperrik zebiltzen:  
 neska gaixoarentzat sendagairik etzen.

Errege jauna ba dator sallaren karraxiz...  
 aspaldiko order alaba ikusi zun irriz.  
 Orain ere lanak ziran lengo alderantziz:  
 alaba, txoro-txoro, parra ezin geldiz.

Ikaratu da aita, artantxe geldituko oten-dan;  
 –Jauregi-ate-aurrean salla an ari baitzan–,  
 zimizia baino len an da asarre beroan:  
 denak illarazteko oiuegin zuan.

Soldaduak ba zoazin ek iltzeko asmoz;  
 berela mutil gaztea gelditu da mokoz.  
 Aren atzetik laisterka guziak oztupo;  
 artan bereizi ziran andik aurrerakoz.

Mutillak oiue aundi bat Errege-alabari:  
 –«Aski ola!»; bildotx beltza, berriz, marrakari...  
 Irria atertu zitzaion gaitzen sendagarri...  
 Neskarentzat mutilla maite maitagarri.

Illabete bage, biak ezkondu ziraden...  
 dantza-soka ateratzeko aña aur izan zuten.  
 Axuri beltz artaz ere aztu ez gaitezen:  
 Erregiñak eskutik azi zuen gizen».

Gerogo begi-illunago, ez irri sekulan:  
 zer egin etzekitela akituaz zoan.  
 Senda nai dunari, oiue Erregeak ontan,  
 pozik lezaiokeela emaztetzat eman.

Txabol aul batean, iru anai ziran bizi  
 Erregearen agintza zutenak ikasi.  
 Ba-ez-bada, asmatu dute beinik bein ikusi  
 alaba ari nolatan par egiñarazi.

Zarrena ba doa bidez –besoan saskia,  
 ondotik ezpaineraño sagarrez gorria–;

sorgin-zuloan atso bat dakus eroria...  
andik ateratzeko ezin zan balia.

Oiuka asi mutillari, arren, laguntzeko;  
betarik etzedukala saietseratzeko...  
Aurrera doa zuzenik garaiez eltzeko,  
Andre Erregin alaba, albait, ez galtzeko

Jauregian sartu dute eriaren aurrera;  
sagarreri begira ta begiak atzera...  
bi eskuz –atsegin ez ta– ditu baztarrera:  
len bainon illunago gelditu da bera.

Bigarren anaia, lore politekin doa...  
sorgin-zulo ber-berean ikusten atsoa...  
Oiuari kasurik ez, zuzen-zuzen doa  
irriz zabaldu-asmoz nexkaren gogoa.

Jauregiko alaba arek, lenari bezela,  
bi eskuz keinatzen dio xorta ken dezala.  
–Ezkoa bezain ori zun aurpegi-azala.  
Sartua zirudion betikoz itzala–.

Irugarrena ba doa –eskuan ezer ez–...  
sorgiña zuloan zegon laguntzaren galdez.  
Eskua luzatu dio, ta, alako mesedez,  
pozik galdetzen dio zer nai dun ordainez.

–Nik emanen dizut, seme, nai duzun zoria.  
–Ain zuzen, aren bila naiz etxetik jauzia...  
Erregearen alaba ain omen-eria,  
betiko gal omen-du ortzetan irria.

–Tori, bada, bildotx beltz au; ar zazu zurekin;  
etzazula deusik ere trukatu onekin;  
ez utzi besotik ere... Au eitearekin,  
ezkonduko zara zu Erregiñarekin.

Besoetan bildotxa, ta ba doa mutilla,  
atxoaren agindua eginez isilla...  
Erregearen erria ikusten du urbilla...  
Ua an, eta bereala aingeru-ekzilla.

Ostatu batean sartu; gau lekua galde:  
bientzat an etzauntzarik ez dala diote:  
–Apez-etxera zoaz, ta naikoa ba dute..  
Mutillak ara jo du beta galdu bage.

Neskamea atera zaio -aurpegian irri-:  
 ba dula bildotxa goxo-goxo non iñaurri:  
 oge biguin bat emanen diola berari...  
 -Ez dezaket-diotsa- eskutik igorri.

Arritzen dira Apeza ta neskame Mikela;  
 mutilla temaz ari da utz ez dezakela...  
 Egoki ez baita arekin etzateko, gela,  
 artegian, dio, lo eginen dutela.

-Utikan! Egizute lo gaur oge goxoan-  
 esaten diote, zoro dagoelakoan;  
 afal ere egin dezala bildotxa-besoan...  
 Eseriak dituzu biak sutilloan.

Mutillak, etxean baino afari obea  
 -«txikia baino goxoa Apezan eltzea»-;  
 bildotxak ere bein ez du ala bete estea:  
 aurrenik esku bai gatz, urrenik, alea.

Lotara doazi denak nor bere xokora.  
 Biamonez aurrena aiek bildotxa gogora...  
 Apezak begia zorrotz giltzaren zulora.  
 Susmorik ez, ta nai du sartu en ondora.

Poliki sartzen da gelan... bi arrotz aiek lo.  
 Esnaraziko ote-ditun alditxo bat dago.  
 Isil-isilla joan da oge-ondorago:  
 esnarazi bage ezin egon luzeago.

Belarri batetik eltzen dio bildotxari;  
 ikaraturik gaixoa asten marrakari.  
 Besoan daukala, artzaia artan iratzarri...  
 komeria an asten da guziz urragarri.

Baduk oberik! Apeza itsatsi gelditzen;  
 eskua bereizi nai ta alperrik nekatzen;  
 oiu du neskameari, datorren lenbailen...  
 Orduan da lotatik doi-dorik esnatzen.

Erdi-jantziz, ille-arro, atera gelatik;  
 soiñekoa, sartzekoan, urra du atzetik.  
 Nagusiari laguntzen an da, arnas-esturik;  
 eldu dio beltxari beste belarritik.

Loturik gelditua da Apeza bezala;  
 bat eta bestek tiraka ustu dute gela;

irurak tarrapataka ba doaz kalera...  
atzeko zuloa-arren lotsa da Mikela.

Baratzan igarotzean, azaren astoa  
beste eskuz erauzi, ta itxi du zuloa.  
Komerilarien salla Jauregirantz doa  
–oraindik au, dantzaren lenen-Zortzikoa–.

Bide-ertzetik iru auntz osto aren gura...  
ezpaiñez uki-orduko ba dute lokura.  
Mutiko, bidotx, Apez ta neskaren bilkura,  
zilipurdika an doa eriaren kura.

Oraindik arago, okiña, –jeki-berri baitzen–  
leiotik so dagola lagun dute eskatzen.  
Okiña atzetik asten da katea bereizten...  
besteak bezela antxe lotu-bearra zen.

Araxego, sutegian arotza dakuste:  
karraxik, lagun diela eskatzen diote.  
Ba’doa gizon bizkorra uste bezain uste...  
loturik gelditzen da denen isats-orde.

Arago, bi emazteki, –erratzak eskuan–  
atal-aurrea garbitzen elkar-apustuan...  
ikusiz, irri dagite lertzeko moduan;  
asarre, neskamea mintzatzen orduan:

–Irri baino obe zinute guri lagun-egin...  
–Or bada– aiengana dira beren erratzekin.  
Joka asita, len kolpean lotu ziran berdin  
–erratzen kirtenetik eskurik alde ezin–.

Bide-ukondo batean txakurrari lotua,  
belauna geitxo jasoaz zetorren itxua.  
Zakurra, aiek pasatzean zaunka amorratua,  
gona bati elduta an lotu da gaixoa.

Zilipurdiz urbildurik Errege-jauregira,  
alabaren gelaraino noizbait sartzen dira.  
–Lorik etzitzaion eldu aspaldi begira,  
ez jangalerik, ez ta parrik aurpegira–.

Leio eder baten, bekoz an zegoen jekia  
–beso-alki biguinean lepo-eroria–.  
Zalaparta sumatzean, jaso du begia:  
lenik mutil bat dakus aurrekularia...



...Axuri, Apez, neskame, azosto eta auntzak,  
okin, arontz, emazte bi erratzei josiak:  
soka-dantzaren azkena txakur-itsu, biak...  
alabak ager ditu ortz eta begiak.

Horrela egiten da soka. Eta iristen da jauregira. Eta ikusten ditu errege-  
ren alabak, eta irri gure nexkak. Irri eta irri. Eta isiltzen ez. Orduan beldur  
errege, ez ote zaion gehiago alaba parrez atertuko. Larri errege. Eta hiltzeko  
agintzen du denak. Hona:

«Soldaduak ba zoazin ek iltzeko asmoz;  
berela mutil gaztea gelditu da mokoz.  
Aren atzetik laisterka guziak oztopoz;  
an bereizi ziran andik aurrekoz».

Mutilak i oiua haundi bat Errege-alabari:  
–«Aski ola!»; bildotx beltza, berriz, marrakari...  
Irria atertu zitzaion gaitzen sendagarri...  
Neskarentzat mutilla maite-maitagarri.

Illabete bage, biak ezkondu ziraden..  
dantza-soka ateratzeko aña aur izan zuten.  
Axuri beltz artaz ere aztu ez gaitzen:  
Erregiñak eskutik azi zuen gizen».

Horra ipuin eder horren bukaera, «axuri beltz» hura erregiñaren eskutik  
jaten ikusten dugula. Polita, politik bada.

Errege-erregin kontuak utzi, eta beren artekoetara datoz hurrena. Herriko  
neska-mutilen artean bikoteak egiten hasten dira, Petiri Trakets deituak neska-  
zahar baten itxura kantuz eman ondoren. Eskerrak, «alakorik, ala ere, ondoan  
ez baitu». Bestela, nahiz-eta orduan ez ziren orain bezain minbera gauza ho-  
riekin, har zezakeen kazkarrekoren bat.

Eta bikotegintza berez jostagarria eta jesteta bada ere, batekin berebizi-  
koa egin dute. Garazi Errekaldekoaren atzetik Gorri dabil, baina neskarentzat  
hobea dela deklaratu dute Mikel Munoz Txikikoa. Hona:

«Larra berrian eperrak dira, pagadietan usoak...  
Neskatxa gazte pinpirina da Garazi Errekaldekoa.  
Orrek maite bat bear omen du bera dan bezalakoa;  
bera ona da ta ohea luke Mikel Munoz Txikikoa».

Egin dute egitekoa. Hori buelta Gorriren barruan: Ikus:

«Artzaia arnaska ardi-billa mendi garaiean  
noizean bein gelditzen da txintxarri-zurrean.  
Biotzean pilpira ta ziztu belarrian  
besterik ez entzuten ingurumarian.

Alako zirrara Gorri'k artu du bi bider.  
 Buru-begiak lurrera; zulorik ez da ager.  
 Goizeko abarkarena sineskeri alper...  
 besteri diote eman aren Gerrieder».

Hori egoera gure Gorrirena!

Eta errege-erreginen ipuin erromantikoaren eta Gorriren trajiko honen artean, bada beste bat umore beltzekoa esan dezakeguna. Eta nola ez!, hemen Danbolin jaunaren emaztea dugu protagonista. Alabarekin du koplaz elkarriketa. «Ama, ezkondu! Ama, ezkondu» eginez dauka neska; baina doterik biltzeko modurik ez dauka inola ere. Eta kulpa, amak du. «Gonapeko» edo «eskilapeko»ak du errua. Marimil Dorronsoro da izen-deituraz andre hori.

Zer emakume puska! Hori langilea eta hori pestajartzailea! Andre bertsolaririk izan ote zen galdetzen du zenbaitek. Hor dauka Marimil Dorronsoro, Orixek ederki pintatua. Gizona bera ere autsi izandu omen zuen gure andreak bertsotan. Solamente alabarengandik entzuten ditu epelak poeman. Aurten izango duela dotea biltzeko adina esaten dio alabari, artoa eta txurikina nahikoa badutela-eta. Baina alaba ez da fio. Lehen gauza bera esan izandu omen dio eta dena alperrik. Izan ere.

«Zer alderdi dago oiekin? –dio alabak–  
 Etorri ta ala joan.  
 Bildur naiz, laister  
 diraden ardanegi-zokoan».

Ez da berriketa handik aurrerako elkarriketa ama-alaben artean. Giro horretan doa artazuriketako giroa, eta giro horri dagozkion kantuek eta dantzek hornitzen dute lan-festa hori. Lanarekin nahasten doaz amodio kontuak eta kantuak eta herriak horren inguruan sortu dituen esanak eta filosofia guztia.

### «Iruleak»

Aitatzte aldera, kantu hau ere amodioaren inguruan arilkatzen da. Baina hemen beste tonu edo aire bat du amodioak. Hemengoa zabala eta sakona da. Nola bestela eraman liolanaren nekea? «Lioaren nekeak urte dantsu dirau» dio kronistak: «udalen, azken, negu, aste egun eta gau». Baina «ez du guzia neke, bai ere atsegin» dio. «Onak elkartzen gaitu aiten aitonekin.

Irugarren amonak irun zunarekin egindako jantzia deramat nerekin». Haunditasun eta edertasun hori guztia kantatzen da hemen. Hargatik sartuko dira hemen harako «Alos torrea» hura, eta «Goizean goizik jeiki ninduzun» hura, eta «Atharratze-jauregian» delako, non deklaritzen duen emakumezko bikain batek «ez naute ni salduko idia bezala». Eta hiru bertso hauekin bukatzen da kantu eder hau:

«Arloa bukatuxe gauerdi aldera,  
ezin utziko dute linaien ondarra.  
Nai ta nai ez erre edo irun egin bear da:  
ostera, billa dator gauerdiz sorgina.

Danbolin'en andreak komeri egiten  
atxo guziak ditu parrez urrazzten.  
Amonak sukaldea txukun du ekortzen,  
aingeruk, ez sorginak, dantzatu daitezen.

Beteluko sorginak orduko bil ziran  
Lekunberri-inguruko bideburu artan.  
An egin zuten dantza uju tarrapatan;  
aurrek loa gozoa etxe-oialetan».

Hori errematea, lioaren lan gaitzarentzat: «aurrek loa gozoa etxe-oialetan» Horra bi kantu eder, gai bertsuarekin, baina guztiz giro ezberdinarekin.

Horrela segi genezake beste kantu guztiekin ere, ikusiz Orixek nola lotzen dituen elkarrekin lan edo arlo jakin bat eta berari dagozkion esan eta ipuin eta filosofia, eta nola herri hartan eta garai haietan lanbidez lanbide herriaren memoria berritzen zen jendeen eta belaunaldien artean.

Baina buka dezadan beste gauzatxo batekin. Lehorte ikaragarria da. Beren herrietako santu eta santak erreguru dituzte euri eske. Harri dago zerua. Eta azkenean San Migelera egiten dute Letari. Oinhutsik eta guzti egin du zenbaitek bide luze hori. San Migelen egin dituzte ohiko otoitzak. Elizaldia bukatu dute, eta hona zer kontu dakartzaten elkarren artean:

«Elizaldia bukatu ala  
mordoka doaz zelaira;  
itxaro-bidez gora ditute  
begiak odeietara:  
«Oraingoan bai, atzoko ontzaren  
oiua gezur ez bada  
—esan du batek— euri gozoa  
jetsiko da lurretara».

Egunez ontza suma ezkerro  
esana da laister euri;  
bestek «Oilo bat oilar eginik  
atzo kukurruka ari:  
orrek ekaitza berekin oi du  
utsik egin bage ekarri».  
Etxanderaren ezpain-otoitzak  
ez ote zion igarri?

Katua goizik musu-garbitzen  
besteak ikusi omen du:  
ark ere, erriak asmatu denez,  
ekaitz laisterraren zantzu.  
Azkenik, batek igarpen oiek  
onako ontaz garai ditu:  
lurra, artaraino legor zalarik,  
satorrak gorri du urratu».

Zeinen ederki bilduak beren lekuan eta beren garaian herriaren uste eta kontu eta kantu eta bizitzako filosofia guztia.

Horri esan nahi izan diot nik «Herriaren memoria lanbidez lanbide berritzea». Kulturgintza paragabe bat da hori eta herrigintza paregabe bat ere bai. Belaunaldi desberdinak hor josten dira inolako nekerik gabe, berez-berez bezala, eta horrela hornitzen da egiazko herritasuna. Gaur oso zaila da eskola modu hori, belaunaldi desberdinek topagune gutxi baitaude, eta etxeak behar du izan hemendik aurrerakoan, gauzak horrela segitzekotan belaunaldiak lotuko dituen gunea.

Horra nekarren apurra esan.

**UMEEN MINTZAIRAZ ETA KANTUEZ (I)**  
**MANUEL LEKUONAREN URRATSAK APAIN-OLERKIAREN**  
**TEORIA MAMITZERAKOAN (I-II)**

*Eibar, 2002-XI-28*

*Juan Mari Lekuona*

**I. 1921: Umeen mintzaira**

Inkesta bat egin zen Hego Euskal Herriko herri batzuetan, gero, 1921ean, argitara eman zen *Anuario de Eusko Folklore*, 1 (1921), 31-37 orr. Lan laburra da, baina aberatsa, umeen mintzairari buruz, aurkezpen modura, Manuel Lekuonak paratu zuena. Ez da literaturako ekaia edo tema, baizik hizkuntzalaritzakoa. Halare jakin beharreko arloa, kulturaren aldetik, analisiak tajuz bideratuko badira.

**Oharkizun orokorrak umeen mintzairaz**

Umeen lexikografiari buruzko azterbide honetan bereizi ditzakegu hiru multzo: a) onomatopeiak; b) itxura aldatutako hitzak; c) lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak; d) aditz laguntzailea ez da jokutzen; e) bigarren silabako hotsak, lehenengoa aldatzea, eta haren antzeko gauzatuz.

**1. Onomatopeiak.** Esan nahi du nola hitz baten osagarri fonikoak akustikoki antzaten, sujeritzen edo errepikatzen duten errealtatea, hitzaren bidez adierazia. Bi erakoak izan daitezke horrelako onomatopeiak: **zuzenak**: hitz hots bez errepikatzen direnean izadi batek ateratzen dituen berezko hotsak, adibidez, *guau-guau*, *pipia*, *taka*, *pa*, *aupa*, *kikak*. Eta **zeharkakoak**, non ez dituzten soinuak zuzenak errepikatzen, baizik eta pertsona helduek erabiltzen dituzten hotsak izadi hauekin tratatzen dutenean: *purra-purra* (oiloeekin), *aida-aida* (idiekien), *txiki-txiki* (txerriekin), *tto-tto* (txakurrekin).

**2. Itxuraldatutako hitzak.** Helduen mintzairan erabilitako hitzak dira, baina hitzok erabiltzen direnean umearen organo guztiz heldugabeetan, aldaketak egiten zaizkio hitzari, itxuraldaketak, beti ere arau jakinen barruan eta finkatzen zail ez diren legetan aldaketak egiten zaizkiola.

Umeentzat kontsonante biguinak dira zailenak. Horregatik, ahalegin bat nabaritzen da **Kontsonante bortitzagoak jartzen**, maiz gertatzen da *b* eta *g* hotsak *p* eta *k* bihurtzeko joera (*papo baporen ordez, koxo, goxoren ordez, itxuxi, itsusiren ordez*). Beraz, umeen mintzairan lehenengo legea da hots bortitzak sartzea, biguin eta aspiratuen lekuan.

Umetxoen mintzairan beste ezaugarrietako bat da, palatalizazio eta diminutiboen joera. Eta aipagarria da arreta jartzen zaiola ume-mintzaldian bigarren silabak lehenengoan daraman hotsari: *papata zapatari; txantxi, jantziri*.

**3. Lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak.** Badira umeen mintzairan fonema berak errepikatzen dituztenak (*attatta, amama, nañan, arre-erre, pipia*), eta hitz hauek hipotetikoki hartzen ditugu lexiko prehistorikotik bizirik dirautenak bezala (36 or.). Hala nola: *papa* = ogia, *mama* = ura, *txitxi* = okela, haragia, *koko* = arraultza, *titi* = bular, *nini* = umea, *lo-lo* = lo egin, *kaka* = hesteak hustu, *xixi* = erre, eta abar.

Lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak ditugu, eta Manuel Lekuonak bere iruzkin-hitzak inkestari buruz atera zituenean, gehiago hitz egiten zuen prehistoriaz. Behar bada hizkuntza hau galdurik zegoelako helduen hizkeratik, baina oso bizirik zegoena umeen hizkuntzan, hala nola umeen mintzairan bakarrik gordetzen diren herri-kontaerak eta zenbait joku izaera zaharretakoak.

**4. Sintasiari buruzko oharra.** Horrelako mintzamoldeen ezaugarririk jakingarriena da esaldiaren erreztasuna bilatzea. Honetan dutela helburu dirudi umeen mintzamoldeak.

Hala nola, aditz laguntzailea ez da jokatzeko umeen hizkeran, zaila egiten zaie nonbait. Eta jartzen da bakarrik aditz-izena nahi den denboraldian (lehen, orain edo gero) *Nork egiten zuri? Nork eman? Gero emango nik*. Horrela, pieza klasikoak dira *Kukurruku. Zer diozu?* Eta kopla hau:

«Arre, arre, mandako:  
bihar Tolosarako  
etzi Iruñarako.  
-Andik zer ekarriko?  
-Zapata ta gerriko».

Beraz, umeen mintzarak baditu:

- 1) Onomatopeiak
- 2) Itxura aldatutako hitzak
  - a) Kontsonante bortitzak tartekatzea
  - b) Palatalizazio eta diminutiboen joera ugaritzea
- 3) Aditz laguntzailea ez da jokatzeko

- 4) Bigarren silabako hotsak, aldatzen du lehen silabakoa, bigarrenaren antzekoa sartuz.

(Ikus: Manuel Lekuona, «Lenguaje infantil», in *Anuario de Eusko Folklore*, 1 (1921), 31-37 orr.)

## II. 1933: Umeen kantuak

*Yakintza* aldizkariko zuzendariak gomita egin zion Manuel Lekuonari lan bat egin ziezaiola *Ume kantuei* buruz. Eta artikulua gorpuztu osatzeko, Gasteizko seminarioan euskal literaturari buruz ematen zituen erakusaldiak aukeratu zituen. Bergaran, 1930ean eman zuen mintzaldiagatik, eta ondorengo arrakastaren ondoren, ziur zegoen zuzendaria ospea eta izen ona emango dizkiola aldizkariari Manuel Lekuonaren lanak.

### 1. Umeen artea eta harpeetako artea

Umeen arteak antza handia du antzinateko gizakiaren artearekin, Neolitiko garaian bizi ziren kulturazko gizakiek eta gaur egungo umeek antz-antzerara egiten dituzte beren marrazkiak.

Arte neolitikoaren ezaugarri bereziena estilazioa da. Orobat umeen kantuen hizkuntza estilaztua dela esan behar. Zinuen sailak, guretzat ez dira pasatzen dekorazio-soil diren marrazkiak izatetik, baina primitibo hautentzat gordetzen dituzte askotan poema osoak.

Hemen ere, umeen olerki hizkuntza estilaztu egiten da, hotsezko zaion joerari eutsiz; eta esanahiaren aldetik ezer esaten ez badute ere hotsak ospetsu eta entzungarriak dira, diztiratsiak, berritasunez konbinatuak, eta artifizio harrigarriak landuak.

### 2. Estilazioak zer dakarkion testuari

a) **Itxuraldatu eta deformatu egiten du hitzen hotsa bera:** horrela gertatzen da bele-ehizaren deskripzioan, non batetik zortzira zenbatzerakoan, GA bat ipintzen zaio enumeraketan, hotsa aldatuz:

«Baga, biga, higa,  
laga, boga, sega,  
zai, zoi, bele  
arma, tiro, pun!»

«(Uno, dos, tres,  
cuatro, cinco, seis,  
siete, ocho, cuervo;  
arma, tiro, pun).»

b) Ez dira hitzak itxuraldatzen, baizik berbaldia bera: murriztuz esaldia bera, zenbait hitz kenduz (aditz laguntzailea ez jokatuz, iluntzen dela esaldia bera):

«Xirristi-mirristi, gerrena, plat  
olio-zopa, kikili salda  
urru, edan edo klik!...  
Ikimilikili klik».

«Xirristi, mirristi, asador, plato,  
sopa de aceite, caldo de gallo,  
tragar, beber o engullir...  
Ikimilikili klik»

c) Besteetan, estilazioa egiten da nahasten direnean euskal hitza, erdarazkoekin:

«Arriyola-briyola  
echo la cama la  
victo-victoria...  
Bringun-brangun  
Plixt!»

«Arriyola-briyola  
echo la cama la  
victo-victoria...  
Tambaleo-tambolea  
Plixt!» (Apagón)

d) Onomatopeiak: «Pun, klik, ikimilikili klik, bringun-brangun...»

Onomatopeiak esan nahi du nola hitz baten osagarri fonikoak, akustiko-ki antzaten, sugeritzen edo errepikatzen duten, errealitatea hitzaren bidez adierazia. Estilizatzeko prozedura handienetako bat dugu. Onomatopeia ba-koitza da umearantzat, lauki bizi bat, poema oso bat. «Kukurruku» batek bi-ziarazten dio umetxo bati, Birgiliok pertsona edadetu bati sujeritu diezaioke-ena baino gehiago.

\* \* \*

### 3. Mimika eta melodia

Umeen kantuak beti dira musikatuak eta mimikatuak. Umeen kantua, hala izango bada, jolasbide izan behar du. Mugimendu handiko joko bat. Mimikak parte garrantzitsua suposatzen du, ume baten entretenimendu aukeratuetan.

Bestalde, umeen ideologia, antzinateko gizakiarena bezalatsu, giro batean lekutzen da, magiaz eta misterioz blai eginda dagoen mundu batean.

Antzeko bidetik, behar bada, umetxoen kantuak, estilizaturiko kantuak, alde zurretik izan zuen gramatikalago poema bat, kantatua eta mimikatua, neurritsua eta bizi urria duena bere trazoetan, arte magdalenensienaren bikote bezala.

### 4. Elementu folklorikoak

Gainerakoan, esango digu Manuel Lekuonak, ahal duen eran, saiatuko dela Euskal Herriko elementu folklorikoei eusten, hain direnez aberatsak alde



horretatik: euskal ume-kantuak, doinuak, sagaratutako formulak, errepikak, esaldiak, onomatopeiak, pertsonaien izenak eta izpiritua, toponimia eta abar.

\* \* \*

Behin une honetara iritsiz gero, ez da gehiegizko gauza izango beste eredu batzuk aurkeztea. Horrelako kantuak izan litezke giarik hoberena umeen kantuak ikertzeko, estudiatzeko:

1. Arriola-marriola, kun-kuan-kin...  
 –Porta zelan? –Porta min.  
 Arrixamalet-marrixamalet  
 kirun-karun pek!
2. Pin-pon, lau seron;  
 tres sardinas y un capón;  
 saltxa-pika, tortolika  
 de putzon.
3. Don-don kikelabon;  
 saltsa-luka, esla-buka  
 buka, madre, saltsa-bon;  
 likan-likan, tortolikan...  
 Bran-brutx!
4. Don-don, kikilikon;  
 saltsa-pica, tortolica...  
 Bran-brutx!
5. Don-don, irten;  
 sakati fuera.
6. Don-don, ke-bon;  
 attona Martxelon;  
 kiski-ti, kaska  
 kaska-melon.
7. Don-don, kikilikon;  
 tartali kopulente,  
 attona Martxelon  
 kañabera-kañabera  
 lau pilikon;  
 mizketan-mizketan  
 koxka melon.
8. Don-don-don;  
 bera-bera baña  
 cuatro ríos que hay en Prantzia  
 arre matxube,  
 arre mandube  
 don-don-don  
 que se salga usted.

9. Pin-pon, la-Va la-Valentzia,  
aquí Española Prantzia;  
pone-pone así  
aberia opendi  
Pin-pon, Don Vicente Don.
10. Dona-dona Isabela  
Manuela, Catalina  
veinte bonete,  
zipi-zipitón  
Martin-zapatón,  
kañabela tronpeta,  
lau kirikon;  
zaku zar batian  
iru gizon;  
lau kiri-andre  
bost señala gurutze  
Elduñeta Santa  
Gurutze.
11. Dona-dona katona  
kike-lurden mantzana;  
tuturupe, tuturupe  
ocho y nueve San Andrés.
12. Dingi-lingi mañe  
bizar Santa Mañe  
etzi San Andrés;  
abadie kantuan,  
umia zilluan;  
atte samiñez,  
ama negarrez.  
Din-dana.
13. Elie,  
errotan gari berrie;  
Antziola'ko oyan azpin  
aingeru kaska-zurie.
14. Arrelando-lando  
Marikita buscando;  
cinco compañía;  
emen gatoz lau  
kanpae-joten bi;  
emaizu limosnia  
Jaungoikuagaitik.

15. Otsailko-otsailko,  
guk otzoa biek ilko;  
okela bat eta okela bi  
nere burruntzie bete bedi.
16. Txixta-mixta, organixta;  
emen ez dagola, or dagola.
17. Mix-mix, Erramix;  
arratoia kolkoan;  
ematen, ematen, ematen...  
neronei ematen.
18. Iru ta iru, sei  
iru bederatzi  
amar hemeretzi,  
bat hogeï;  
kixkili ta mixkili  
irurogei.
19. Iru ta iru sei,  
iru bederatzi,  
amar hemeretzi,  
bat hogeï,  
bost egun,  
sei mila, atxuketa-bila;  
Ku-ku!
20. Kurrilo-kurrilo lepo-luze;  
Naparro-naparro bide-luze.
21. Fuera-fuera  
xexena fuera;  
adarra motxa  
punta-xorrotxa...  
Arrapatzen ba-zaitut,  
arrapatzen ba-zaitut,  
bertan-bertan ilko zaitut.
22. Txan-txin-txibirin,  
Bilbo'ra ba, une.  
-Txan-txin-txibirin  
zer eiten?
23. Txan-txin-txibirin  
makillatxuek  
txan-txin-txibirin  
ekarten.

24. Atzian-motzian, peroli-pan,  
zeure semiak errotan  
topa eban asto bat;  
kendu entzan besten bat,  
ipiña entzan beste bat.  
    errota zarra  
    errota-barri,  
    kris-kraus.
25. Zubiri-zubiri, nungori-nungori?  
Nungo alkate zerade?  
Prantzia'ko Errege baten  
seme-alabak gerade...  
–Zubi ontatik urren-urrena pasatzen dana  
emen geldituko dala  
emen geldituko dala
26. Txin-txirikitin txorie,  
txoritxo txilibitarie...  
Erein nuen ogie  
oso arlo aundie:  
uste nuen eun anega,  
imiña bat zan guztie  
imiña bat zan guztie...  
Txin-txirikitin, txorie,  
txoritxo txilibitarie.

\* \* \*

## 1977: UMEEN KANTUAK (2)

*Eibar, 2002-XI-29*

*Juan Mari Lekuona*

Neronek eskatuta, egin izan zuen Manuel Lekuonak lan hau. Bi urte zen Andoaindik Oiartzuna etorri zela; eta beraz, 83 urte eginak zituen. Lekaime-entzat, udapartean, antolatzen zituen gotzaindegiak, euskal kulturako gai asko; eta urte hartan, besteak beste, egokitu zen ume kantuez mintzatzea. Halaxen egin zuen Manuel Lekuonak, herri literaturako maisu handiak.

Mintzaldi hau argitaratu zen: M. LEKUONA, *Idaz-lan guztiak*, 1985, 9. tomoa, *Literatur-sorkari*, Gráficas ESET, Vitoria/Gasteiz, 23-40.orr. Eta lan hau berau izango da iturri nagusia gure sintesia burutzeko eta gure iruzkinak egiteko erabiliko duguna.

### 1. DEFINIZIOA

Definizio erreala eman aurretik, hobe izango da adibide batzuk aurkeztea, umeek erabiltzen dituzten araberakoak, soka-saltoan ari direlarik kantatzen dituztenak:

- 1.1. «Atxio-Matxio Perolipan:  
nere semea errotan.  
Errotara ninjoala  
topatu nuen erbi bat;  
kendu nion begi bat,  
para nion berri bat  
Errota-pio, klak, klak...»
- 1.2. «Bunbullun-bunbullunete,  
botillan aguardiente...  
Bunbullun bat eta bunbullun bi,  
Bunbullun putzura erori;  
edan zituan pitxer bi,  
ez zen orduan egarri».
- 1.3. «Txan-txibiri, txibiri, txibiri,  
txan-txibiri, txibiri-txon,  
Txan-txibiri, txibiri, txibiri,  
txan-txibiri, txibiri-txon».

Eta beste hau ere bai, nahiz ez bada ere soka-saltoan kantatzekoa, ume-kantuen arteko eredu jakingarria da:

«Arriyola-briyola, echa la camala;  
victo-victoria, bringun-brangun plixt».

\* \* \*

Aurkezten ditugun adibide horietatik, atera liteke ume kantuen definizio erreal bat; atera liteke adibideen testu beretatik eta umeek nola erabiltzen dituzten moduetatik.

Egia da, bai, umeek ez dituztela «errezitatzen» bere poemak; kantatu egiten dituzte; eta kantuari gehitzen diote, gutxienez, gorputz espresio bat. Hala egiten du beti, *Gure Aita* ikasten duenean eta berdin *Biderkatzeko Taula* buruz finkatzen duenean. Kantua eta gorputz espresioa baliatzen ditu.

Hortik ateratzen da eman dezakegun definizioa. «Umeen kantua da umearen solasaldi nagusia, hitzen, melodiaren eta gestuen bidez lortzen duena». Ikusten denez egiazko hiru Arte Ederren Dinamikaren sintesia, Poesiarena, Musikarena eta Dantzarena. Eta zenbat eta hobeto uztartzen dituzten anderei-noek hiru elementu hauek orduan eta garantia handiagoak dituzke kantua erakusteko.

## 2. DANTZA, MELODIA, POESIA

Hiru elementuon azterketan, hirugarrenetik hasiko gara, Dantzatik, edo ekintzatik, gestutik, mimikatik. Ondoren musika aztertuko dugu, melodia eta erritmoa gogoan hartuz. Eta azkenik, poesia, letra.

### 2.1. Dantza - Ekintza - Gorputz espresioa

Ume kantuetan ekintzaren agerkeria nabariena lehenago aipatu duguna da, gorputz espresioa *Gure Aita* edo *Biderkatzeko Taula* eta abar ahopeka kantatzen dituztenean. Konplexuagoko forma batean, ekintza bera joko izango da, umeen joko, izatez kantua bera dena, umeek eguneratua.

Izan ere, zenbaitetan egiazko joko bat izango da edota ofizio baten iminitzioa, *Anton Pirulero* kantuan bezala, zeinetan, hitzen arabera, *cada cual hace su juego* (bakoitzak bere joko egiten du) esaten da.

Beste batzuetan, nor gehiagoka egingo dute, *Marru-marruka* joko adibidez burutzen dutenean. Nahiz *marru-marruka*-n kanturik ez egon, halare, nor gehiagokaren taldeak egiten dituztenean, kantua erabiliko dute, adibidez *Don-don Kandel*; edota «itsu gelditzeko» kantuak direnak «kikilibio» edo antzekoak.

Hala ere, ekintza erabiliena eta tipikoena *sokasalto* da. Sokasaltoan, ekintzari lagun egiten diote melodia tartekatuak, benetan preziagarriak, berdin ere hitzak ederrak direnak, eta hauetakoak direlarik preseski aukeratu ditugun genero honen eredu motak, ikasaldiaren hasieran eman genituenak.

Asko ikusten da horrelako kantuetan, ekintza –jokoa– garatzen den ezzena batean, bai errenko, bai biran, antz-antzean gaztelerako *Al-alimón* egiten den eran: umeen bi errenko, eskutik helduak, aurpegia emanez eta buruz-buru lehen partean, atzera eta aurrera ibiliz; eta bigarrenean korroan sailkatuz, boroilean mugitzen direla. Eta gehienetan melodia iradokitzaile baten inguruan. Ume kantuetan hitzekin eta melodiarekin nahasten dira beti gestua eta ekintza, Dantzari dagozkion elementuetan.

## 2.2. Melodia - Musika

Mugimentuari buruz asko eskatzen badu ere Umeen Kantuak, gehiago eskatzen duela esan behar Musikan. Eta musikan eskakizun handiagoa da *Erritmo* elementuan eta ez hainbeste *Melodian*. Umeari asko gustatzen zaio neurrutako mugimentua: Erritmoa. Gainerakoan, Melodia elementuan, egiazko aberastasuna dago Umeen Kantuetan. Bai euskaran eta bai erdaraz.

Melodi aberastasunean, bikainak dira euskal ereduak Aita Donostiak Baztanen bilduak, hala nola goian aipatu ditugunak, *Doran-donian-don*, edota *Ni ez naiz zomorroa*, edota *Baxakaran beltza*.

Manuel Lekuonak aipatzen du nola gerraurrean lantzen zituzten musikak eta melodiak ez euskaldunak, helburu pedagogikoa zutenak, Dalcroceren kasuan adibidez. D. Jose Markiegi, Debakoa, Mondragoiko apaiz-laguntzailea eta Oiartzunen fusilatua, egin zuen kantu bat fama handia izan zuena: *Hain urrin etxe pospola, hola-hola, tximinitik gora, kea dariola, hola-hola*, pieza hau ume txikienak mimitizatzen zuten han hartan, graziazko gestuak egiten zituztela *hola-hola* testuen azaltzen diren haietan.

Baina behin eta berriz esan dezagun, musikaren eskakizun handia dagoela, erritmoaren alderditik. Umeen Kantua erabat erritmikoa da, erritmo hau dantzarena, elementu funtsezkoa delarik, ikasi dugun kantuen zati berezia.

## 2.3. Letrak - Poesia

Berriro ere oroitu dezagun, Ume Kantuen edo Ume Jokoen elementu klasikoak direla, Poesia, Musika eta Dantza.

Orain, Poesiaren edo letren analisiak egiten hasi aurretik, hauek baitira kantu osoaren eusgarri direnak, aipatuko ditugu ereduazko zenbaki asko, usa-

rioz zerbitzatu dutenak umeen kantuak sortzeko ahaleginean. Horietako formak eta formulak asko, atzo ikusi genituenak, eta atzoko txostenean daude-nak (Ikus 4. puntuak, Elementu folklorikoak).

Aipa ditzagun lehenik ereduzko hiru edo lau ale, gure kasurako erakus-bide izango direnak:

«Baga, biga, higa,  
laga, boga, sega,  
zai, zoi, bele  
arma, tiro, pun!»

«Xirrixti-mirrixti, gerrena, plat  
olio-zopa, kikili salda  
urru, edan edo klik!...  
Ikimilikili klik».

«Arriyola-briyola  
echo la cama la  
victo-victoria...  
Bringun-brangun  
Plixt!»

«Don-don Kandel  
Barriola-Barriola  
Plixt!»

Gero datoz 26 pieza jakingarriak, 1933.go mintzaldian Manuel Lekuonak argitaratu zituenak eta guk hemen berrargitaratzen ditugunak, giarik hoberena bezala umeen kantuak ikertzeko, estudiatzeko.

### 3. UME KANTUEN PROZEDURA OROKORRAK

Hiru prozedura orokor nabaritzen dira aurkeztu ditugun adibideetan:

- 3.1) Errepikazkoa
- 3.2) Imintziozkoa
- 3.3) Estilizaziozkoa

**3.1. Errepika.** Prozedura hau da, agian, ume kantuetan aguroenik nabaritzen dugun alderdia.

– Errepika hau bertsoaren eskakizuna da. Bertsoa berez da formula errit-miko baten errepika edota iterazioa eta bertsoa (latinezko adizetik dator *ver-ti, reverti*, eta esan nahi du *itzuli, errepikatu*).



– Formula erritmiko beraren errepikatzeaz gainera (silaben eta azentuen konbinaketa bera), bada beste errepika literalago bat ume kantuetan; eta da, testualki hitzen beren errepikatzea.

Adibidez:

«Papá, si me dejas ir  
papá, si me dejas ir  
un poquito a la alameda  
un poquito a la alameda...»

– Bada beste errepikatze bat gaur hain literala ez dena; baizik Figura Erretorikoz Fikzioan egiten dena, *Epanadiplosis* deitzen dena; eta da, estrofa baten bukaera hartzen dela, hurrengo estrofaren hasieran. Adibidez:

«Lua-lua, txuntxurrun-berde,  
lua-lua, masusta...  
Aita guria Vitoriya-n da  
ama manduan hartuta.  
Aita guria Vitoriya-n da  
*ama manduan hartuta*;  
aita guriak diru asko du  
ama perian salduta.»

– Bada beste errepikatze bat ume kantuetan asko erabiltzen dena, eta da, errepika egiten dela hitzaren beraren oihartzun bat bailitzan bezala. Adibidez, *Atxio-Matxio*, *Arriola-Marriola*, *Arriola-briola*, *Bringun-brangun*, *Bunbullun-bunbulluneta*, *Don-don Kandel*, *Barriola-Barriola*, *plixt...*

**3.2. Imintziozkoa.** Imintzioak edo Onomatopeiak apartatu berezi bat eskatzen du euskarazko Ume Kantuen azterketan.

– Onomatopeiak, bilatzen du hitzak erabiltzea gauzen hotsa antzaten dutela. Eta ez umeetan bakarrik, baizik eta pertsona helduen artean ere bai, aurkitzen dira formulak onomatopeikoak euskal hitzen artean.

– Zenbait adibide eman ditzagun:

«Xirixiti-mirixiti, gerrena, plat  
olio-zopa, *kikili*-salda  
urru, edan edo *klik!*...  
*Ikimilikili klik*».

*Kikili*-salda; *caldo de ave* (*kikili*, oilarraren onomatopeia), *urru*, (edan egiten duenaren onomatopeia); *klik*, zintzurretik pasatzearen onomatopeia.

– Onomatopeiko da beste kantu hura ere:

*Txin-txirikitin* txorie  
txoritxo txilibitarie.  
Erein nuen garie,  
guziz arlo handie;  
uste nuen ehun anega  
imiñe bat zan guztie...  
*Txin-txirikitin* txorie  
txoritxo txilibitari».

**3.3. Estilizazioa.** Ume kantuetan prozedurarik orokorretan tipikoena estilizazioa da. Eta prozedura hau lau eratara egin ohi dugu:

- 3.3.1. hitzen deformaketaz;
- 3.3.2. hitzen kenketaz;
- 3.3.3. erdarazko hitzen tartekatzeaz;
- 3.3.4. hots handiko hitzak erabiltzea.

**3.3.1. Estilizazioa hitzen deformaketaren bidez lortua.** Esenplurik adierazgarriena da, bele-ehiza deskribatzen denean esaten denez:

«Baga, biga, higa,  
laga, boga, sega,  
zai, zoi, bele  
arma, tiro, pun!»

Bele-ehiza baten berri ematen da, non deformatzen diren zenbakien ize-na, *GA* bat erantsiz, eta hitzak bihurtuz egiazko jerga baten kategoriara. Beste honenbeste esan liteke, otorduaren kantuaz, non *mirritxa* hitza = cicatero: *xirixiti-mirixiti* egiten baita hitz deformatua eta errepikatua.

**3.3.2. Estilizazioa hitzak kenduz lortua.** Aipatu berri dugun esenplua ekar daiteke, hemen:

«Xirixiti-mirixiti, gerrena, plat  
olio-zopa, kikili-salda  
urru! edan edo klik!  
Ikimili-kili-klik».

Esenplu honetan kentzen dira aditz guztien aipamenak.

\* \* \*

**3.3.3. Estilizazioa, erdarazko hitzak tartekatuz lortzen dena.** Otorduaren esenplua daukagu, non *plato* bat ikusten baitugu, *azpil* posible baten ordezkoa izan litekeena. Beste hainbeste esan liteke *Arriyola-briyola* kantuan, non sartzen baita gaztelaniazko esaldi bat, *echa la, cama la, victo-victoria*.

